Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak 1- Eaurta (hasiera)

KOLDO ARTOLA*

SARRERA LABURRA

Lan honetan, aspaldisko beste batean egin genuena gogoan izanik[1], zaraitzuerazko aditz laguntzailea oinarritzat harturik ibar honetan zenbait urtez bildu ahal izan ditugun esaldien lagin zabal bat hona ekartzen saiatu gara.

Horretarako, 1975. urteaz geroztik bilduz joan garen materialak husteaz gainera, 1989.az geroztik Pedro de Yrizar jaunarentzat –ikertzaile paregabe, langile nekagaitz eta bihotzeko adiskidea– Eaurtan eta Espartzan bildu ditugun inkestak egitean[2] agerian geratu diren adibide batzuk ere hona ekarri nahi izan ditugu.

Datuak bildu ditugun herriei ordena bat eman behar eta, Aezkoarekin muga egiten duen Eaurtatik abiatuko gara, handik Otsagira jaitsi eta ibarreko herri nagusi honetatik hegoalderantz, Ezkaroze, Orontze eta Espartzarainoko norabidea jarraitzeko.

Harrigarri suerta dakioke bati baino gehiagori, agian, zerrendatxo honetan Itzaltzu herria ez agertzea; hona arrazoia: 1975 urtean eskuratu genuen bi aldeetatik idatzi orri bateko informazioaren arabera[3], bost ziren bertako euskaldunak –Otsagikoak laurogei[4]– baina, orduantxe jakin

* Donostiako Aranzadi Zientzi Elkarteko Etnologia Mintegikoa.

Esker biziak eman nahi dizkiot, arazo gehienbat gramatikalak direla-eta, laguntzaile izan dudan Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziatua.

[1] *Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra (I)* - FLV 58, 1991.

[2] Bi herriotako emaitzak Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental (III)* izenburuko lanean ikus daitezke, zazpina koadrotan aurkeztuta, bere lanetan ohikoa duen moduan.

[3] *Trabajo llevado a cabo por la Ikastola Muskildako Ama, de Otxagabia - curso 1975-76. Censo de euskoparlantes en el Valle de Salazar - 1. Villa de Izalzu.*

[4] Beste orri batean, *Trabajo llevado a cabo por la Ikastola de la Villa de Jaurrieta curso 1975-76* izenburukoan, eaurtar euskaldunen kopurua, artean, berrogeita hamaseikoa zela ageri da.

genuenez, bost lagun horietatik hiru –hirurak andere– ezkontzaz, Otsagitik hara aldaturik zeuden, laugarren lagun bat –hau, ordea, gizonezko–, ezkontzaz ere bai, Eaurtatik Itzaltzura aldaturik zegoela, bosgarren laguna izanik, bakarrik, sortzez itzaltzuarra, Lorenzo Goienetxe jauna, Adot etxekoa, artean 84 urtetan zegoena.

Gizon hau, baina, aldi berean gor eta itsu samar omen zegoenez, ez zitzaigun, egoera horretan, elkarrizketatzeko moduan egongo zenik iruditu eta, honela, herri horretako informaziorik bat ere gabe konformatu behar izan genuen, zeren gerora ere, inoiz edo, aipatu herrian sortu beste norbaiten urratsen atzetik ibili garen arren, are Iruñean berean ere, azken batean geure uste edo itxaropena ustela gertatu baita.

Haria berreskuratuz, eta hasierako lerroetan lan hau aditzean oinarritu dugula esanik geratu baldin bada ere –adibide guztietan adizkiren bat aurki baitaiteke–, hona ekarri ditugun esaldi askotan –dela morfologian eta fonologian, dela sintaxian eta lexikoan, esaterako– ustez garrantzi handiko datuak eskaintzen dituzten adibideak agertuko dira, zein bere lekuan islatzea komenigarriak iruditu zaizkigunak. Honek guztiak, baina, lanaren neurria etengabe luzarazi du eta, ondorioz, bera zenbait emanalditan argitaratu behar izatera gomendatu, Eaurtan bildu datuak (1989-1998) argitaratzeari eskaini diogun lehenengo hau hiru zatitan banatu behar izan dugula.

ZARAITZUERAREN KOKAPENAZ HITZ BI

Louis-Lucien Bonaparte printzearen euskalkien mapa oinarritzat hartu izan da eta hartzen da gaur egun ere euskal dialektologiaz aritzean. Zaraitzueraren kokapena dela-eta, denboraren joanean printzeak izan zituen zalantzak hark berak eginiko behin-behineko sailkapenetan nabarmen geratu ziren, hauetako lehenengoa prestatzean (1861-63) zera idatzi baitzuen, Pedro de Yrizarren *Contribución a la dialectología de la lengua vasca (I)* izenburuko lanean (105 or. eta hur.) irakur daitekeenez:

> 6º. Que el suletino, en fin, extiende su dominio fuera de Soule, a Esquioule (en el distrito de Olorón), y a los valles de Salazar y sobre todo de Roncal (en la Alta Navarra) donde se usa un dialecto que sólo puede relacionarse, según nosotros, con el suletino (…).

Bigarren sailkapenean (1864-65), lehenengoarekiko aldaketa batzuk egin ostean, zera ondorioztatu zuen:

> Para el suletino: 1º. Suletino de Soule - 2º. Suletino de España: Salazar y Roncal - 3º. Suletino de Baja Navarra: Cize y Mixe.

Hirugarren sailkapena (1866-68) aditzera ematean, honako baieztapena egin zuen:

> 5º. Navarro-suletino que comprende los cinco dialectos siguientes: 1. Suletino de Soule o suletino propio, representante del dialecto; 2. Roncalés de Navarra española; 3. Salacenco de la misma provincia; 4. Cizo-Mixano subdividido en Cizano, Mixano, Bardosiano y Arberuano; 5. Adurés o vascuence de las riberas del Adour, hablado en Urcuit, Lahonce, Briscous, Mouguerre con Eliçaberry y Saint-Pierre-d'Irube. Todos estos dialectos

(sic) admiten, más o menos, el tratamiento respetuoso, contrariamente al bajo navarro.

Laugarren sailkapenarekiko (1869) iruzkina egitean honakoa idatzi zuen Yrizarrek arestian aipatu lanean (118-119 or.):

> Esta división fue expuesta por Bonaparte en el *Verbe basque* y con arreglo a ella levantó su portentoso *Mapa lingüístico* en el que, sobre los detalles geográficos y administrativos (incluso el dato interesantísimo de la extensión de los valles navarros), trazó, con meticulosidad extraordinaria, los límites de los dialectos, subdialectos y variedades, anotando todos los pueblos, y muchos barrios y caseríos, comprendidos en cada variedad. Señaló, además de las zonas en las que dominaba el vascuence, aquellas otras en las que era hablado solamente por una minoría. En la citada división, que exponemos a continuación, consideró el Príncipe 3 grandes grupos, 8 dialectos, 25 subdialectos y 50 variedades.

Horren ostean, zaraitzuerari dagokionez lehenengo aldiz, nintzamolde hau zubereratik kanpo ikusten dugu:

> Grupo C - Dialecto VI: Suletino - Subdialectos: 18, Propio; 19, Roncalés.
>
> Grupo C - Dialecto VII: Bajo-navarro oriental - Subdialectos: 20, Cizo-mixano; 21, del Adour; 22, Salacenco.

Printzeak beraz, urtebete lehenago –1868an, hain zuzen– eta behin-behinekoz izan bazen ere zaraitzuera 'navarro-suletino'tzat jo zuen arren, azkenean behe-nafarreraren baitako azpieuskalki gisa sailkatu zuen[5]. Hona, bestalde, ibarreko euskararen hedaduraz eta beste zenbait zertzeladaz hark egin aipamena *Études sur les trois dialectes des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal* izenburuko lanaren azken orrian:

> Le salazarais, que nous regardons comme un sous-dialecte du bas-navarrais oriental, est usité en quatorze localités sur quinze dont se compose la vallée de Salazar (Zaraitzu): Ochagavia (Otsagi), Izalzu (Itzaltzu), Jaurrieta (Eaurta), Esparza, Ezcaroz (Ezkaroze), Oronz (Orontze), Ibilcieta (Ibizta), Sarries (Sarze), Güesa (Gorza), Ripalda (Errepalda), Igal (Igari), Izal (Itzalle), Iziz (Izize), Gallues (Galoze), Uscarres (Uskartze). Dans cette dernière localité, le basque a cessé d'être parlé, car en 1866 nous n'y avons trouvé aucune personne, originaire de cette commune, qui fût en état de pouvoir converser dans cette langue. Une vieille femme de ce pays, qui pouvait parler le basque dans sa jeneusse, avait fini par l'oublier. A Racas le Haut au contraire, situé en dehors des limites de la vallée, on pouvait encore en 1866 entendre parler le salazarais par la majorité des habitants, composée seulemente de quelques individus.

Garai hartan, beraz, zaraitzuera ibarraren hegoaldetik kanpora ere zertxobait hedatzen zela jakinarazi zigun printzeak, bere mapa ezin ederragoan ere gertaera hau zehazki islatu zuela.

[5] Harrrigarria, edozein kasutan, haren mapa zoragarriak 1863ko data eramatea, urte horretan hizkera honen sailkapenarekiko erabakia behin-behinekoa baizik harturik ez zuela. Mapari data ezartzean, behar bada, okerren bat gertatuko zela pentsa daiteke.

Yrizarrengana itzuliz, honek, Bonapartek egindako sailkapen desberdinez iruzkin mamitsuak egin ondoren, honela diosku gero:

> El cotejo de la división de 1869 con las anteriores arroja el siguiente resultado: (…) 7º. Bajo-navarro oriental - Como hemos dicho, todas las variedades que lo constituyen estuvieron incluidas, en 1866-68, en el navarro-suletino. En cuanto a su historia anterior, la de Salazar era considerada como perteneciente al dialecto suletino desde la 1ª clasificación, y el cizo-mixano, desde la 2ª (…).

Yrizar, azkenik, honela mintzo zaigu, besteak beste, *Observaciones posteriores a la clasificación de 1869* burutzat duen ohar-sail biziki interesgarria eskaintzean:

> Azkue, verdadero archivo viviente de datos lingüísticos procedentes de todos los rincones del País Vasco, nos dice[6] que ha seguido casi a la letra la división del Príncipe Bonaparte, introduciendo las siguientes variaciones: considerar el roncalés no como subdialecto suletino, sino como dialecto[7], y ver (…).

Gure egunotara itzuliz, zaraitzuerari ere egokitu zaio, nonbait, Azkueren denboretan erronkarierarekin gertatu bezala, sailkapenez aldatu beharra, bai behintzat 1998. urtean aldizkari honetan Koldo Zuazo irakasle prestuak argitara emaniko *Euskalkiak, gaur* lan txit interesgarrian ageri den euskalki-sailkapen berriaren arabera; izan ere, azken hatsetan dugun mintzamolde hau orain arteko kokapen ezagunetik –ekialdeko behe-nafarreraren esparrutik, hain zuzen– atera eta, duela zenbait urte desagertu zaigun erronkarierarekin aurrideturik, honexekin batera aurkeztu baitu ikertzaile eibartarrak, *Ekialdeko nafarrera* deiturapean, horretarako hainbat arrazoi eman duela.

LAN HONETARAKO INFORMATZAILEEN ZERRENDA

Gure egunotara hurbilduz, eta mamian sartzeko, ondoko lerroetan Eaurtan sortu eta lan honetarako aukeratu ditugun eraman handiko datu-emaileen zerrenda emango dugu. Hona hemen:

1) Carmelo Krutxaga Esarte (CK), 1899an *Lorenzena* etxean sortua; gurasoak ere eaurtarrak izan zituen. Ezkarozera ezkondua[8], guk ezagutu genuenean Iruñeko Iturrama auzoan bizi bazen ere. 1989-92 bitarteko denboran bildua.
2) Salvador Karrika Karrika (SK), 1903, *Eskujuri*; gurasoak ere eaurtarrak. Artzain ibilia. 1990-95etan bildua.

[6] Azkue: *Diccionario vasco-español-francés*, I liburukia, XXVI-XXVII.

[7] Yrizarren oharra: "Nos dice el propio Azkue que debe la iniciativa de esta idea a Campión. Como hemos señalado, en 1880 el Príncipe Bonaparte escribía a Campión que el roncalés era casi un dialecto independiente".

[8] Datu-emaile honen eta beste batzuen ezkontzagatiko herritik kanporatzeari, alabaina, Zaraitzuko ibarretik atera ez ziren neurrian, ez diogu aparteko garrantzirik eman, zaraitzueraren batasuna edo, nahiago bada, barne-kohesioa ia erabatekoa dela kontuan izanik. Horregatik lagun hauek beren sorterriko gainerako datu-emaileen artean utzi izana, ez baitirudi herriz herriko aldatze horrek beren mintzamoldean eragin nabarmenik izango zuenik.

3) Javier Krutxaga Garate (JK), 1905, *Torrea*, aita eaurtarra eta ama esparztarra. Itzaltzura ezkondu zen, guk ezagutu genuenean Irunberriko Adinekoen Egoitzan bizi zela. 1991ean bildua[9].
4) Pablo Arozarena Monzón (PA), 1901, *Quiteria*; aita eaurtarra eta ama ibiztarra. Artzain ibilia eta Orontzera ezkondua. Ilunberriko Adinekoen Egoitzan galdekatu genuen lagun hau ere. 1992an bildua.
5) Javiera Urralburu Migelena (JU), 1906, *Bilbao*; gurasoak ere eaurtarrak. 1993-98etan bildua.

Zaraitzueraren esparru honetan Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental (III)* lanerako egin ditugun inkestak bi izan direla esan dugu: lehenengoa Eaurtan –XIX. mendean ibar honetan Bonapartek bildu zuen aditza ere herri honetakoa dugu[10]–, informatzaileak goraxeago aipatu lagunak, Javier Krutxaga ezik, izan direlarik, eta bigarrena Espartzan, kasu honetan informatzaile bakarra Jacinto Ramírez izan dela.

Oraingo saio honetara itzuliz, eta hirutan banatu dugun lanaren lehenengo zati honetan Eaurtan bildu ditugun materialak agerian ezartzen hasi aurretik, hona herri honetako informatzaileek zenbait gairi buruz erakutsitako iritzia:

TRATAMENDUARI BURUZKOA

CK: ez gíra bízi bàizik ere írur.

(hari eginiko galderak erantzutean Carmelok, etengabe, hikako erak erabili bazituen ere, grabatu genizkion elkarrrizketa askeko kontaera batzuetan indefinitua erabili zuen gehienik, aurreko adibidean ikusi bezala)

CK: aitá, atzó xin yuén apéza.

(bitxi badirudi ere –bai denbora haietarako behintzat– Carmelok tokako tratamendua erabili zuen behin baino gehiagotan haren aitarekiko zenbait adibide ematean)

CK: ikùsi duá? [= ikusi du + a].

(bitxi bada ere galdera honetan *dukek*-eko tratamendua eman zigun Carmelok –horrela deitzen zion berak–, gaztelerazko 'de usted'en gisakoa, singularreko 3. pertsonakoa, Uztarroze eta Izaba herrietan ere erabili ohi zena –*duketz* edo *dukez* esaten zitzaion haietan–; hau, baina, salbuespen gisa erabili zuen informatzaileak gurekiko harremanetan)

SK: apézari ta… zarrér, ya, *xúka*; eta yá, berzér [gizonezkoei, alegia], pues *tóka*.

(hots, gurasoei, apaizei eta, oro har, errespetu handiz hitz egiten zaien pertsonei, *kóntá zaxu,* omen, eta ez *konta zazu.* Are gutxiago, beraz, *konta beza* –berorika edo–, arestian aipatu Erronkari ibarreko herrietan ezagutu bezala. Joera hau ez dator bat C. Krutxagak erakutsiarekin)

SK: [aitari, adibidez:] átzo nón egon xíntxan?

SK: [arrebari, adibidez:] aréstian eré xán tún.

[9] Hau da, hain zuzen, Itzaltzura ezkonduriko eaurtarra, lehen aipatua. Irunberriko Adinekoen Egoitzan itzaltzuar euskaldun bat bazegoela norbaiti aditurik, lehen ere aipatu Itzaltzuko euskaldunen zerrendari begiratu bat eman gabe hara joan eta, horixe gertatu zen, goxo-goxo hartu gintuen gizona ez zela sortzez itzaltzuar, eaurtarra baizik.

[10] Bonaparte, L.-L.: *Études sur les trois dialectes basques…,* Londres, 1872.

SK: Isabel, apézak xan tín guziák.
Pablo ere emazte zenarekin hiketan mintzo zeneko adibideren bat badugu:

PA: [aspaldi, emazte zenari, adinean zertxobait sarturik ezkondu zirela eta:] úrte aniz dún, ez naún [= ez dinagu] izaén áurrik. Izaén diauk [emaztearen erantzuna].

JU: [hemen] étxinuén usátzen *zétara* [*z* hizkia, alegia –*zu* esateko, nonbait–], màs que *xú*.

JU: los de la Universidad… pues, tomaron una lección en *xu*, y otra en *zu*; y… pero aquí… qué sé yo, cómo les saldrá.
– *Hemen 'zu' guti, ezta?*

JU: *xu;* casi la lección que les di, pues, toda fue postiza de la… del vasco de aquí, porque aquí no se usaba el *zu*, más que *xu*.

JU: xàn ginixún ógi anitz, pa decir a la madre: amá, atzó xan ginixún ogí ánitz.

JU: áita, nióxu tríste… lagúnarí èrre baitzaió etséa.
(azken bi adibideek Javierak bere gurasoekin erabiltzen zuen tratamendua agerian ezartzen dute)

JU: eta… nai báda, pues xardóki… uskéra… suábeaz ['xuketan', alegia], *txáuri! txóri!*, eta… 'de tú', *náugi!*

EUSKARAREN NOLAKOTASUNARI ZEIN EGOERARI BURUZKOA

CK: eta… éne balléan, bàdaudé… amazázpi errí… ta kuási-kuási guziák iguál.
(euskara ezagutu zuen herrietan modu beretsuan mintzatu dela aditzera emateko esana, antza)

CK: ta kán [ibarraren hegoaldean] bádagó errí-burrústa bat: Gallués, Izíz, Guésa, Igál…
– *eta horiek, euskaraz, nola dira?*

CK: kór eztágo uskàrarík.
– *ez, baina, euskaraz xardokitzen duzuenean nola erraten duzue?… Galloxe?*

CK: Gallóxe… Uskárztre (sic), Izíze, Itzálle, Igári, Górza… ta Ripálda, kan, saétsëan, ugáldiarén saétsean, Ripálda.
– *eta Sarries?*

CK: Sarriés ta… Sarriés eta Ibiziéta (sic) saétsëan.
– *eta horiei, euskaraz, nola erraten zaie?*

CK: gor éztago uskárarík, orái…
– *ez, ez, baina euskaraz nola erraten da Sarries, Ibilzieta, Esparza…?*

CK: Sártze [laguntzaz emana], Ibízta; Espárza, Espárza…

CK: kán [Espartzan] eztúte xardókitzen orái úskära, bàizik ére… z(a)árrek; besték bátre.

CK: pues Eskárózen, euskárára, eztú iórk eré xardokitzén, baia enténdatzen duté guziék.
(baieztapen hau baikorregia iruditzen zaigu, errealitate gordina oso bestelakoa baita ondorengo esaldiek aditzera emango dutenez)

CK: bádaki, bai, uskárara; orái… uskárará gáldu dá, éztu iók eré… elekatzén.
(Ezkarozeko Pilar Zarraluki andereaz esan zuen hori)

CK: baia órai, sémëak, eztú entenditzén bátre órre(k); enténditzén dú guziá baia eztú xardokítzen.

CK: ta ónek, onék eztu ikási bátre.

(C.A. Osasuna futbol-taldeko jubeniletan ari zen –orain profesionaletan– eta gurekin zegoen bilobaz esan zuen hori)

CK: ya… Otságin éztuté xardokitzén… euskárara.

SK: [herrian diren euskaldun zaharrez] eztáo bezík… bída edo irúr emázte, eta gizón… gizón… gúti! bueno gúti, lo más… lo más bát edo bída; bát eo bída, bai, bát eo bída.

JK: oái, Eàurtáz (!), xardòkitzen dixú bái, úskära.

(bere herritik aspaldi lekutu zenez, euskara haren gazte garaiko egoeran mantentzen zela iruditzen bide zitzaion Javierri)

JK: Itzàltzún ez, Itzáltzun etz, etzén… uskára… xardokítzen.

JK: Izáltzún, óräi, emàzte orrék eta ník, bezték, iórk ere… apezák ere, eztáki an, uskára.

(Itzaltzura ezkondu Irene Goiena andere otsagiarraz esan zuen hori Javierrek)

PA: ói… lén, izàen zén, guziá… úskera.

(aspaldiko denboretan, gaurko Euskal Herritik kanpoko lur-eremu zabal batzuetaz dio)

JU: ken… ez gínixun iórk ere ikási uskéra eta ez gínixún… ikúsi déus'e uskéraz, bàizik ére… étsean práktikátu zéna, bàizik éskolán erdéraz, dotrínan erdéraz, eta… gàuza guziá… ikastèko zerá erdéraz, ta apézak eré erdéraz.

– apeza ez zen euskalduna?

JU: bái-bái, ken, erríköa; baia… guziá emàten zixún erdéraz.

– denbora hartan? orduan anitz egiten zen euskaraz…

JU: ah, bai, baia… kebén e, eztíxu'zérengatík baia… erdéra anítz ere báxinu(e), bai; a lo mejor, guárdia anítz ebíltzen báitzen ta guzt–, aék erdéraz xardókitzen báitzien; a lo mejor pues…

JU: … kéngo uskérara; xinuén klároagó ezik bértze koek

JU: eta… nài dielá… *xú*, porque baitá… uskéra suábea, suàbeagó èzik… ber(t)zé koek.

JU: kében… xardòkitzen xinuén uskéra ánitz, baia… étxe… aníztan etziákixién, ez, erdérarik, baia gúk, edókitzen ginixún guardia civil ánitz, ténbra kartan; bádakixu guárdiak zér zrén? ta… erdéraz xardókitzen báitzien, pues… ikási ginixún ere erdéra… áski ère.

JU: ník eztíxut [= ez diakixut?] nóla ikàsi nuén baia… géro, senárrarèkin ére xardòkitzen nixún ánitz; xinuén Abúrreko, eta… xardókitzen nixún erdéraz… [zuzenduz:] edo uskéraz, ánitz, eta… konsérbatuz, baia… béste gísan órai éz xardókitzearekín…

– zuk ere baduzu ahizpa bat Abaurregainean, ezta?

JU: bai, bàia íl xínuen; òrai duéla… bízpur ilabéte, eztíxut nóiz (?) izán zen, mártzoan regulárki; arék xardókitzen zixún, bai… gúk xardókitzen gënixún… uskéra, bíek, bíok sólo gintzáxun, eta… baia ìl xinuén mártzöan.

(1998ko abuztuan esan zuen hau Javierak)

JU: baia búkatu xu kében, búkatu xu úskera kében… eztiákixe iórk!

(andere honexek dioenez, duela urte asko bere senar zena operatu behar izan zutela-eta Donibane Garazi inguruko ospitale batera –Izpurakora beharko zukeen, antza– biak, senarra eta bera, joan zirelarik, garaztarren artean iraganiko egunetan euskararen bidez biziki ongi konpondu ziren)

INGURUKO MINTZAMOLDEAK DIRELA ETA

CK: kalésekín báte, kal(l)ések [= Erronkariko ibarrekoek] eztúte xárdokitzen uskàrarík! ez, éz-ez-ez… lénagó bai, orái ez.
– *zergatik izen hori? eztakizu zergatik deitzen dituzten horrela?*
CK: ez, eztákit; nónbrea kàla duté…
– *eta zuk, zure gazte denboran, xardoki duzu haiekin euskaraz?*
CK: bai, bai, bai…
– *zuena bezalakoa zen ala diferentea?*
CK: kuási… diferénte, baia enténdátzen ginuén guzía.
CK: bai, Abúrregañekó… uskar(r)ára ére… Eaurtákotík dá diferénte; uskáldünak baia diferénte.
– *eta zein da diferenteagoa, Abaurregainekoa ala Uztarrozekoa?*
CK: Abúrregañeköà.
– *ongi konprenitzen zenuen Erronkariko euskara?*
CK: bai, bai, bai… [uztarroztar bat ezagutu zuela dio, eta harekin mintzatu], oiánian, bortúan!, 'en el puerto' erráten báitakoe.
– *eta Abaurregainekoarekin diferentzia gehiago?*
CK: bai, gexágóiko (sic) bai; gut(t)í baia… askí ere.
– *baina Otsagikoa eta Espartzakoa eta horiek igualtsu, ezta?*
CK: koék iguál; Eáurtarík eta Ezkarózerá ez bàia… Aúrreáltalá bai, Abúrreàltará báda diferénzia.
CK: ta géro, Burgíte (sic) aldiála, kàn uskárará zerrátuago.
JK: nik etxút, áit(t)u… óla, xardókitzen; en Roncal…
Javierrek, halere, zuberotarrekin euskaraz ongi moldatzen zela dio.
JK: ordúan, bai, ordúan xardókitzen ginuén bai, ba óngi, béti… frantsésekín!
PA: níek (sic) eztút, kállesík, aitú, xárdokitzén úskara.
– *ez? ez eta denbora hartan ere?*
PA: éz-ez-ez-ez; bueno… bái-bai, erran dút ezétz; zaár… áldián, zomáit bái, áituen nuen.
PA: etzén igual éz [erronkariera], nóla… aétzak, èta zaitzuárrak (…) báita kásik… en distinto!
Mauletik 5-6 km.tarako herrixka batetan trenbide-trabesak egiten egon zela eta, galdetu genion ea euskaraz egiten zuen hangoekin.
PA: ah… e, úskera…
– *eta ongi konprenitzen?*
PA: ber…bértan, beréala!
– [Javiera Urralbururi:] …*haren euskara* –Abaurregainekoa zen senarrarena– *eta zurea ez ziren berdinak, ezta?*
JU: bai, bai, iguál… (zuzenduz:) ikási zixún ígual-iguál; baziákixun ène uskéra… baia, xú'badakixú diferènte zéla?
– *bai, Zaraitzukoa eta Aezkoakoa bai; aetzek, gainera, ez dute 'xu'*…[alokutibo gisa, ulertzen da].
JU: *xú* ez… así que gustátzen zaixú *xú*… enténdatzen xú obéki, eztiá? bérste korí eztíxun, (zuzenduz:) ení etziáidaxun… [ezagun egiten, edo].

LANAREN EGITASMOA

Lan honen bidez material batzuk argitara eman nahi izateaz gainera, adizkiok, batzuetan beren soiltasunean eta besteetan era bateko zein besteko deklinabide-markei loturik daudenean –dela sandhiak gauzatuz (maiz gauzatu gabe ere, are ustezko baldintza egokietan), dela laburbilketak eratuz zein beste eratako emaitzak sorraraziz– agerian ezartzen dituzten joera eta lehia bereziak nabarmenaraztea da. Xede honekin, bada, eta *niz* adizkia (= 'naiz') adibidetzat harturik, esaterako, *niz, baniz, eniz* (edo *ez niz*), *bainiz, nizan, nizana, nizanean, nizanez, nizala, nizalarik...* eta ildo bereko emaitzak aurkezten dituzten gisako adibideak, aspergarri suertatzeko inolako beldurrik gabe, hona ekartzen ahalegindu gara.

Horretaz gainera, eta lanaren oinarrizko funtsa adizkia dela ahantzi gabe, hasieran aipatu morfologia, fonologia, sintaxia eta lexikoarekin loturiko gertakari batzuei buruz ere zenbait iruzkin egin dugunez –nahiz eta, zihur gaude, munta handiko beste batzuk aipatu gabe ere geratu zaizkigun–, iruzkinok lerro hauetara ekarri adibideen azpian egin ditugu, halakoak idazteko ohikoagoak diren orri-oinak sobera ez gizentzeko. Era honetan gainera orri-oinok, gehienetan, saio honetatik kanpoko lan batzuen aipamenak edota hauekin zerikusia duten bestelako iruzkin batzuk egiteko baliatu ditugu[11].

Iruzkinok egitean, eta alderaketarako bereziki, duela jada urte asko xamar Erronkari ibarrean bildu genuen zenbait datu izan dugu kontuan. Aezkoan ere maiz izan gara, Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental* deritzan lanerako aditz-bilketa lanetan bereziki[12], baina ibar honetako mintzamoldearekiko erkaketarako, oro har, Iñaki Caminoren *Aezkoako euskararen azterketa dialectologikoa* izenburuko lan ezin aberatsagora igortzen dugu irakurlea.

DATUAK AURKEZTEKO ERA

Hasieran esan bezala, adizkiak biltzerakoan Pedro de Yrizarren ohiko galdera-zerrendak erabili ditugu[13], adizki bakoitzak bere zenbakia daramala honako ordenaren arabera:

1) lehenengo orrian, *nor* gisako adizkiak bildu dira.
2) bigarrenean, *nor-nori* gisakoak.
3) hirugarren, laugarren eta bosgarrenetan, *nor-nork* gisakoak.
4) eta seigarrenetik hamaikagarrenera arte, *nor-nori-nork* gisakoak.

Lan honetara, beraz, hamaika orri horietarako berariaz prestatu taulak ekarri ditugu, hauetako batzuk, handi samarrak izateagatik, bitan banatu

[11] Iruzkin hauetarako Pedro José Samper Elizari apaiz eaurtarraren lekukotasun ugari ekarri dugu, bera baita, Bonapartek bildu aditzaren datu-iturria izateaz gainera, antza, San Mateoren abanjelioaren eta dotrina baten itzultzailea. Iruzkinotako adibideetan, ebanjeliotik hartu ditugun adibideak aipatzean, esaterako, 'Samp(eban)' idatzi dugu, eta dotrinatik ekarritakoen kasuetan, berriz, 'Samp(dotr)'

[12] Datu hauek, hainbat laguntzailek ekarri beste askorekin batera, arestian aipatu lanean argitara eman zituen Yrizarrek, Bonaparteren sailkapenari jarraiki.

[13] Yrizarren lanetan inkesta hauen emaitzak zazpi koadrotan aurkezten badira ere, datuak biltzeko galdera-zerrendek bestelako egitura dute, ekialdeko euskalkietako kasuan hamaika orrietakoak direla.

ditugula: lehenengoak singularreko emaitzak aurkezteko eta pluralekoak besteak. Horiei eutsiko diegu beraz, ahalik zintzoen, banan-banan eta emaro-emaro.

Taulak lau zutabetan prestatu ditugu. Lehenengoan adizkiei emaniko zenbakiak ageri dira; bigarrenean euskara batuko ereduak; hirugarrenean 1872an Bonapartek bildu emaitzak eta, laugarrrenean, 1989-93ko epean guk geuk bilduak.

Ohar bat zenbakiak, batzuetan, *a* edo *b* batez lagundurik ikusiko diren kasuetarako: Yrizarren galde-zerrendetan, eta *nor* kasuko adibide bat agertzearren, 1-01, 1-02, 1-03 eta 1-04 zenbakiak ditugu, lehenengoan indefinitu edo neutroko adizkia biltzeko, bigarrenean tokako alokutiboa, hirugarrenean nokakoa, eta laugarren zukakoa –edo, bere kasuan, honen xumegarria–. Zaraitzun, ekialdeko behe-nafarreraren esparruko beste zenbait lekutan bezala, zukako eta xukako, bi tratamenduak izanik eta gure egunotan azken hau, hizkera hau mintzatzeko gai den gero eta lagun urriagoren joeran, besteari nagusituz etorri zaionez, honako era honetan jokatu dugu bi erantzunak –zukakoa eta xukakoa– ditugun kasuetarako: 1-04-a zukako alokutiborako eta 1-04-b xukakorako. Alokutibo ez diren kasuetarako ere berdin: 1-05-a zukako erantzuna biltzeko, adibidez, eta 1-05-b xukako erantzunerako.

Baina lan guztian barrena, nahitaez, alokutiboekiko aipamen asko egin behar izan dugunez, euskara batuko ereduak biltzeko tauletan prestatu ditugun koadro ttikiak, nahita, bete gabe utzi ditugu, zaraitzuerazko alokutibotasunarekiko erreferentzia soil eta garbia, XIX. mendekoa eta XX.aren bukaerakoa, inolako interferentziarik gabe une oroz aurrean izateko.

Adizkiak direla eta, grabazioetatik ateratako adibideak dira –hauek bilduak izan diren neurrian, noski–, hona ekarri ditugunak, baina eskuz harturiko beste adibide-mordo bat orobat ekarri dugu, batez ere informatzaileek eman erantzunen arteko desberdintasunen bat nabarituz gero. Edozein kasutan adibide hauek, zein bere lekuan kokatzerakoan, aurrenik Bonapartek, 1872an, eta duela urte gutxi lerro hauen egileak, 1989-93ko epean, bildu adizkiak jasotzen dituzten taulen jarraian agertarazi nahi izan ditugu, balizko interesatuak, hala nahi izanez gero, horietako bakoitza han berean ikus, aldera eta aztertu ahal izan dezan.

Inkestak, oro har, eskuz jaso baditugu ere, inoiz, edo galderaren baten zailtasunagatik, edo galdetzen zen adizkia erabilera urrikoa izateagatik edota, informatzaileak, batzuetan, erantzuna emateko denbora pixka bat hartu behar izateagatik, erantzunak grabatu genituenenan, hauek osorik, zein bere testuinguruan, ekarri ditugu hona. Honi eransten bazaizkio informatzaileek libroki, zenbait elkarrizketatan, piskanaka emanez joan diren esaldiak, ia ohartu gabe *corpus* esanguratsuarekin topo egin dugula aise antzeman daiteke.

Adibide gisa eman ditugun esaldi batzuk luze samarrak badira ere, beste batzuk oso laburrak ditugu –eskuz bilduak hauek, gehientsuenak–, sarritan informatzaileok eman erantzunen arteko desberdintasunak agerian ezartzeko balio dezaketenak, hala ere. Gorabehera hauen arteko batzuk ez dira, behar bada, oso esanguratsuak izango baina, beste batzuk, agian –zenbait alokutiboren ezaugarritzat jotzen den *i* baten tartekapen ezari dagozkionetan

batez ere, informatzaileren baten joera arduragabe edo lasaiari zor dakizkiokeenak, bestalde–, ez zaizkigu hain garrantzi gabeak iruditu.

TRANSKRIPZIOARI BURUZKO ARGITASUNAK

Informatzaileen esaldiak hona transkribatzean zeinu batzuk erabili ditugu: azentuak, alde batetik, eta bokal bi puntudunak, bestetik. Honek argitasun ttikiren bat behar duelakoan, hona laburki esanda: azentuek, bi intentsitatekoak –(´) handienekoa, eta (`) ttikienekoa– intonazioaren isla dira, eta haien garrantzia nola-halakoa izan badaiteke ere –batzuentzat, behar bada, gutxikoa– hortxe agertarazten ditugu, badaezpada ere. Guri, egia esan, ez zaigu iruditzen zaraitzueraren azentua, adibidez, erronkarierarena bezainbat finkaturik egon denik –nahiz azken hau ere, eta apaltasun guztiz diogu, ez zaigu inoiz zenbait adituk aditzera eman bezainbestekoa iruditu–, hitz batek berak, maiz, ustez egoera edo testuinguru beretsuan egon arren, azentua lekuz aldaturik agertzen duenez. Izango ahal da gai honetaz sakondu nahi izango duenik!

Bokal bi puntudunei gagozkiela, berriz, eta honen aurreko beste lan batean ere aditzera eman genuenez, hainbat bokalen itxiera dela eta, zenbait aldiz, hauetako biren arteko soinua aditzen dela iruditu zaigunean, honela jokatu dugu: *a* eta *e*-ren artekoa iruditu zaigunean *ä* idatzi dugu; *e* eta *i*-ren artekoaren kasuan, *ë*; eta *o* eta *u*-ren artekoan, *ö*. Inoiz –eta hau nolabaiteko berritasuna (nolabaitekoa bakarrik) izan daiteke zaraitzueraren esparruan– *ü* ere idatzi dugu, *u* eta *i*-ren arteko –edota *i* eta *u*-ren arteko!– soinu bat aditzera eman nahi izan dugunean[14].

Beste ohar bat: baldin hitz batek, bere baitan, parentesi arteko hizkiren bat erakusten badu –*ar(r)ekin* gisako hitz baten kasuan, adibidez– hitz hori erdi *arekin* eta erdi *arrekin* aditzen dela edo, aditu uste izan dugula aditzera emateko idatzi da horrela.

Eta besterik gabe, ditugun datuak –aurrenik taula edo koadroetan ezarritakoak eta ondoren geure materialetatik atera gainerako adibideak– zerrendatzera joko dugu lehen aditzera emaniko ordenaren arabera, lehenengo emanaldi honetakoak bai-eta honi darraizkion bigarrengoak eta hirugarrengoak ere Eaurta herrian bilduak direla ongi kontuan hartuz.

[14] Koldo Mitxelenak oso erreferentzia laburra egin zuen soinu bitxi honetaz (*Notas fonológicas*… 2. atalean) eta, hark ekarri adibide ezin urriagoei so eginez, iduri luke egoera jakin batean baizik ez zela ematen. Datu-iturriei dagokienez, gainera, ez zuen aditzera eman zein herritan bildu zituen, XX. mendearen azken hamarkadan Eaurtako informatzaile gehienen ahotan, Carmelo Krutxaga jaunarenean bereziki, ahoskera hori maiz aditu badugu ere.

TAULA 1
Aditz laguntzaile iragangaitza (*nor* kasua): 01-19, orainaldia; 20-38, iraganaldia.

adizki-zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
1-01	naiz	niz	niz
1-02	tok. alok	nuk	nuk
1-03	nok. alok	nun	nun
1-04 a 1-04 b	zuk. alok xuk. alok	nizu	 nixu
1-05 a 1-05 b	zara id. (xuka)	zra	 xira, xa
1-06	haiz	iz	iz
1-07	da	da	da
1-08	tok. alok	duk	duk
1-09	nok. alok	dun	dun
1-10 a 1-10 b	zuk. alok xuk. alok	zu	 dixu, duxu, xu
1-11	gara	gra	gira, gra
1-12	tok. alok	gituk	gituk
1-13	nok. alok	gitun	gitun
1-14 a 1-14 b	zuk. alok xuk. alok	gitzu	 gitxu, gixu
1-15	zarete	zradie	zadie, zade
1-16	dira	dra	dira, dra
1-17	tok. alok	tuk	tuk
1-18	nok. alok	tun	tun
1-19 a 1-19 b	zuk. alok xuk. alok	tzu	 txu

adizki-zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
1-20	nintzen	nintzan	nintzan, nitzan
1-21	tok. alok	nintzakan	ni(n)tzakan
1-22	nok. alok	nintzanan	nintzanan
1-23 a 1-23 b	zuk. alok xuk. alok	nintzazun	 ni(n)tzaxun
1-24 a 1-24 b	zinen id. (xuka)	zintzan	 xintxan
1-25	hintzen	intzan	intzan, itzan
1-26	zen	zen	zen
1-27	tok. alok	uen	yuen
1-28	nok. alok	uen	yuen
1-29 a 1-29 b	zuk. alok xuk. alok	zinuen	 xinuen
1-30	ginen	gintzan	gintzan, gitzan
1-31	tok. alok	gintzakan	gi(n)tzakan
1-32	nok. alok	gintzanan	gintzanan
1-33 a 1-33 b	zuk. alok xuk. alok	gintzazun	 gintzaxun
1-34	zineten	zintzayen	zintzaen
1-35	ziren	zren	ziren, zren
1-36	tok. alok	ituen	ituen, yituen
1-37	nok. alok	ituen	ituen, yituen
1-38 a 1-38 b	zuk. alok xuk. alok	zintzan	 zintxan, xintxan

Jarraiko adibideetara jo aurretik eta koadroetako emaitzak begibistan ditugula, beste hiru ohar egin beharrean aurkitzen gara:

1 - Gure adibideetan zuketan bildu adibide batzuk agertzen badira ere, hauek ez dira koadroetan islatu, hauetan idatzi diren XIX. mendeko zukakoen eta XX. bukaerako xukakoen arteko erkaketa, inolako interferentziarik gabe, zuzenean egin ahal izan dadin.

2 - Koadroetan, adibidez, *ni(n)tzakan* bezalako adizki bat (1-21 zk.) era horretan idatzi denean, horrek *nintzakan* eta *nitzakan*, biak bildu direla esan nahi du, horrela agertarazteko zioa bi adizkiok osoki idatziak izateko eskas duten lekuari egotzi behar zaiola. Adibideetan aldiz, lehenago ere esan dugun moduan, *Burr(g)in* edota *ego(n)* moduko hitzak (1-01 zk.) idatzi ditugunean, lehenengoa erdi *Burrin* erdi *Burrgin –r* gogorrarekin– eta bigarrena erdi *ego* erdi *egon* aditu uste izan dugulako idatzi dira era horietan.

3 - Informatzaileek adizki bat bera modu desberdinez eman dutenean, halako zertzelada taulen ondorengo adibideetan ezarriko dugu agerian –kasurik gehienak, agian, 'Taula 2' deritzanean–, adibideok idazterakoan ustez erarik egokienei lehentasuna ematen saiatu garela; izan ere, zenbait aldiz, bilduak ditugun kasu guztiak tauletako koadroetan sartzea ezinezkoa izateaz gainera, sartzerik izatekotan ere halakoak beteegiak geratuko baitziratekeen.

adizki-zk adibideak

1-01 CK: kángo… zarréna níz
SK: egón niz Táusten; egón níz Buñuélen
SK: bedrátzi[15] t'erdietán o kála xékitzen niz
(*xeki* hori *xagi* aditu dugu Uztarrozen, gazt. 'levantar(se)'. Hasierako *x*-dun hitz mordoa du zaraitzuerak, erronkarieraren antzera; hona Eaurtan bilduriko batzuk: *xeki/xeiki, xin, xan, xo, xakin, xardoki, xeatu, xorratu, xokatu, xunto/xuntatu, xautu* –gazt. 'limpiar'–, *xau/xagu* –gazt. 'barrer'–, *xuxen, xa* –gazt. 'ya', erronkarieraz bezala–, *xal, xoko, xuri…*)
JK: ta ór, izán niz Iruñéan
(izenorde, erakusle eta leku-adberbioak, gehienetan, hasierako *k*-z aditzen badira ere, inoiz *g*-z eta are batere gabe ere, adi daitezke. 'Iruñea' izenari dagokionez, bestalde, eta testuinguruak testuinguru, honako adibideak ditugu: *Irúñán, Irúñarik, Irúñara/Irúñára* eta *Irúñekó,* CK; *Irúñan* eta *Irúñara,* SK; eta, *Iruñéan* eta *Irúñean,* JK)
PA: izán níz Larráñen
PA: egon níz… Burr(g)ín, Burgín… egon níz, béin, bazkáltzen
(Carmelori ere aditu diogu honelatsu: *Bidàngozén ta Burrgín, r*-a gogorki ahoskaturik)
JU: orái fatén niz
(erantzuna da, aditz trinkoa erabiltzen ote den jakiteko berariaz galdetzean; Orontzen ere molde bera: *fáten núk orái*[16])
CK: ta éniz, apàl eníz fàten bátrere, bien!
(*apar* aditzen ote den gaude [*apal* = 'behera, beheiti']; sandhiari dagokionez, *z* + *n* gehien-gehienetan *n* garbia dugu)

[15] Mitxelenak, arestian aipatu lanean (6. atala) eta arrazoi osoz, 'la síncopa se da en salacenco con la máxima intensidad' dio. Hona Eaurtako gure materialetatik bilduriko batzuk: *ábrats, ábre, adintán, amaséigárnian, amárretrá, arpátu, artsáldëan/-dian, ártsëan, balléarna, bárna, bátre/bátrere, bedrátzi, búrña, ébliz, érden, érman/ermáten, Erríbran, erzátzen, esklára* (= 'eskila', mugatua), *giblétik, graitzúa, igártzen, ken, konsátzen, kórtra, labrári, siéstra* (gazt. 'a la siesta'), *ténbra, Tutrára, zaitzuárrak, zénbrúna, fátra, igártra…, elkítzra, erórtzra…, beztítrik, sártrik…, bukátren* eta *entendátren.* Halaber adizkietan: *zra* –baina *zadie*, XIX. mendean *zradie* bildu bazen ere–, *gra/gitxu, dra/txu, zren, ztuen/ztikan…, ztien/ztiekan…, xtut/xtu…, ztiet/ztie…* eta beste asko. Hauetaz landara, laburbilketa erdi gauzaturik edo ageri zaigun adibideren bat ere badugu, *éb(i)li, gib(e)létik* eta antzeko besteren batzuk, adibidez.

[16] Samp(eban) delakoan ere molde bera: *fatenuzu Ssauna* (21-30), *ura fatéunzu* (26-24) edota *ní fatenizan artean* (26-36), nahiz, beste pasarte batean, *Ceren orra nonciela ezic ni bainua egortzra zuer profetac eta sabioac…* ikusten dugun, hots, 'Porque he aquí que Yo voy a enviaros profetas, y sabios…' (23-34). 'Nua' horrek, dena den, 'joan'etik erakarria dirudi eta ez 'fan'etik –ohiko eaurtar era–, nahiz Samperrek berak, beste une batzuetan honako hauek ere idatzi zituen: *Elcric Jesus templotic, baciazun ya ebliz…*, hots, 'Salido Jesús del templo, iba ya andando…' (24-1); *niazu celebratzra zure etsean bazcoara nore discipuluequin*, hau da, 'voy a celebrar en tu casa la pascua con mis discípulos' (26-18), edota *guizonaren Semea badiazu bereala izatra entregatric becatarien escuetan*, zein baita 'el Hijo del hombre va luego a ser entregado en manos de los pecadores' (26-45). Esaldi hauetan ditugun *ciazun*, *niazu* eta *diazu* gisako era trinkoak, agi denez, hobeki adosten dira lehen aipatu 'fan'ekin 'joan'ekin baino. Aldiz, 1780. urteko Zaraitzuko prediku batean, azken adibide hauetatik beste aldera, 'goan'etik bide datozen –*goateco* eta *goan* irakur baitaitezke berean– *vecatubaten eguitra doaienean* eta *ni cer eguitra noaie* gisako erak jasorik daude (José María Satrustegi: *Euskal testu zaharrak*, 166), eta Satrustegiren beraren *Zaraitzuko euskararen lekukotasunak* izenburuko lanean ere *juaten*, *zoalaric* eta *zoaza* gisako hitzak ditugu. Badirudi, beraz, ibarraren iparraldeko herrietan 'fan' aditza nagusi den bitartean, hegoaldekoetan –hegomendebaldekoetan, agian, zehazkiago?–, Urraulgoitiko euskararen balizko eraginagatik agian ere, 'joan' edo honen aldaera 'goan' gisakoren bat erabili dela, iragan denbora batean. Izan ere, 'joan' edota 'juan' gisako erak ditugu zaraitzueraren halakoxe kutsua erakutsi arren hegoaldeko goi-nafarreraz idatziriko prediku batean, Otsagin aurkitua, Francisco Ondarrak aldizkari honetan argitara emana: *Primer sermón en vascuence navarro (1729).*

CK: oiánían… éniz egon; (zuzenduz:) bai, oiánían egón niz… béiekín, únai… erràten báita… uskáraz 'las vacas'
PA: kóitan éniz ego(n)
JU: èniz óritzen!
PA: ah… enítz oritzén orai
CK: espéra, yá orítzen nizan
JU: ta géro eztíxut nún ya-… yàgo egon nízan; etxú'oritzen
(*eztixut* hori, *eztiakixut* baten laburbilketa da, antza)
CK: jubílatu nizála…
CK: bàia… fatén nízalarík èrrirá…
(*errira* hau gutxitan aditzen da, Carmelo honek berak, 1-11 zk.ko adibide batean, *erriala* erabili baitzuen, era honetako bukaera izanik bai berak bai beste informatzaileek ohiki erabiltzen zutena[17])
JU: ez, eztiákíxut, ez báinitz élki kéndrik (sic), etxút ikúsi apénas…
CK: éz naiz orítzen
JK: ní enáiz fáten
(*fan* aditz honetatik kanpo Eaurtan bildu ditugun *f-* hasierako hitz guztiak erdal maileguak dira: *fia(tu), festak, fite, flore, frontona* eta *funzione,* adibidez)
JU: baña enáix (sic) orítzen
(azken hiru adibideetako *naiz* hori bitxi samarra da Zaraitzun)

1-02 CK: xin núk Eáurtarik

1-03 CK: xín nún Izízerik, Irúñarik
(ablatiboa dela eta, *-rik* gisako deklinabide-marka izan ohi dugu herrien berezko izenei loturik, azken bi esaldi hauetako hiru adibideetan ikus daitekeen moduan; *-tik* gisakoa behin bakarrik bildu dugu, erkaketa-kasu baterako baina: *bai, Abúrregañekó… uskar(r)ára ére… Eaurtákotík dá diferénte*)

1-04 b CK: egón nixú Irúñán
SK: égon nixú Irúñan
JU: pues egòn nixú… Zaragózan; egón nixú… Fràntzia-múgan, San Juánen
JU: orái fáten nixu
(galdetu genion: - eta ez daitekea erran 'orai nae'? - *je! uskéra xú baia bádakixu, béste uskéra bat…* izan zen erantzuna)
JU: enixú orítzen yágo / eníxu orítzen… nor ìzan záiken!
('gehiago' izatera datorren *yago* horretaz gainera *diago* eta *deago* haren aldaerak adi daitezke orobat, gutxienez, Zaraitzun[18])

[17] Hona Bonapartek zer dioen *Le verbe basque…* deritzan lanean, *"Observations"* atalean, XXX orriko ohar batean: "Le suffixe allatif étant en *la*, au défini, il n'y a pas à craindre que *elizara* 'l'église' puisse se confondre avec *elizara* 'à l'église', car c'est de *elizala* que le salazarais se sert dans ce dernier cas. Le roncalais, au contraire, a le suffixe allatif en *ra*, et l'indéfini semblable au défini: *eliza* 'église, l'église'; *elizara* 'à l'église'. De même *usi* 'bois', *usia* 'le bois', *usiara* 'au bois'. Ce dernier exemple prouve qu'il n'y a que le roncalais qui puisse fournir des noms recevant le suffixe allatif au défini, sans que l'article se supprime ou sans que le suffixe s'altère. En effet, en *mendiala* 'à la montagne', le salazarais et le souletin altèrent le suffixe tout en conservant l'article, tandis qu'en *mendira*, les autres dialectes conservent le suffixe sans altération, mais ils suppriment irrégulièrement l'article. Le *r* euphonique, exigé en salazarais entre deux *a*, no se présente pas dans les terminatifs verbaux.

[18] Samp(eban)ek, bere aldetik, *gueago* zerabilen: *Nic erratendauciet gueago* (5-28), edota *¿Cér gueago faltazaida?* (19-20), adibidez.

JU: éz-ez, eníxu sáusten apál

(ekialdeko behe-nafarreraren esparruko hizkeretan *nüzü* –Amikuze aldean, bereziki–, *nuzu* edota *nuxu* dugu, baina ez *ni-*, eta 'hura' kasuan *düzü*, *duzu* edota *duxu*, baina ez *di-*, hizkera honetan bezala. Pluraleko lehenengo pertsonaren *gitxu* era laburtuaren eragina ote? Erronkarieraz, bestalde, Uztarroze da balizko trantsizio-egoera erakusten duena, *nezu* baitzerabilten han, Izaban –eta baita Bidankozen ere, XIX. mendean– *nuzu* erabilirik ere[19])

1-05 a CK: áita, nún egon zirá goizión, goizián?

(*goizion* horrek gazteleraz galdetu 'esta mañana'ri erantzun zion; hots, 'goiz honetan' izatera dator)

CK: xú nón egón zirá?

(hona, kasu honetan, nahasmena erakusten duen adibidea: *xu* baina *zira*)

CK: ta deskúidatzen bazíra zú, zúri eré ozk'ínen du [basurdeak]

(esaldi honetan komunztadurarik eza nabaria da, azken adizkiak *dauzu* behar bailuke; *inen, iten, iteko, inez* eta antzeko laburdurak, bestalde, aski arruntak dira zaraitzueraz)

CK: zú nónköa zerá (sic), San Sèbastianéko?

(Carmeloren azken lau adibide hauek, XIX. mendeko Bonaparteren emaitzak ikustetik ondoriozta daitekeenaren aurka, laburbildu gabeko erak ere maiz adi daitezkeela frogatzen dute; *nónköa* hitzean ageri den leherkari gorra, berriz, oso bitxia da Zaraitzun, Erronkari aldean arrunta baldin bazen ere)

CK: ta deskúidatzen bázra… arágia ére bái

1-05 b JU: ói-oi-oi… ánitz… éb(i)li xirá!

JU: etz? etxíra égon?

CK: nón egon xá xu?

SK: xu eré égon xa

PA: xú nón egon xá?

JU: non égon xa?

[19] Samp(eban)en itzulpenean, haatik, *nuzu* eta *duzu* gisako adibideak ditugu eta hark berak Bonaparteri idatzi gutun batean ere *aniz alegratunuzu* (Nicolás Alzola: *Una carta de D. Pedro José Samper*…) irakur dezakegu. Otsagiko dotrinan, aldiz, *Jauna ni esercen nizu zure escu sanduetan* dugu; Itzallekoan, *Ni becataria confesacennuzu* –aurrenik *confesacennizu* idatzi baldin bazen ere–; eta Igarikoan *ni nizu ignorante bat*. Horra hor, bada, *nuzu* eta *nizu*-en arteko zalantza. Eta Eaurtara itzuliz, bitxi iruditzen zaigu Bonapartek era hauek bildu ez izana haren informatzailea, antza, Samper hori bera izan zela kontuan izanik. Honek, berriz, zera erabili zuen iturritzat ebanjelioaren itzulpena egiteko: *Nuevo Testamento, traducido (…) por el P. José Miguel Petisco, S. J., dispuesta y publicada por el Ilmo. Sr. D. Félix Torres Amat.* Itzulpena, garai hartan ohikoa zen moduan, erabat loturik dagokio argitalpen-iturriari, hitzez hitz eginik baitago –hau honela izan daitekeen neurrian, noski–, sintaxian ere, zer esanik ez, isla berezia duela. Bidankozeko P. P. Hualde Mayo apaizak bere herriko euskarara itzuli zuen *Jesu-Kristo Gore Jeinaren Ebanjelio Saintiua según San Mateo* izenburuko lana ere Amaten testu bera du oinarri (itzulpen honetarako ikus Estornés Lasa, José). Zaraitzura itzuli eta Bonapartek argitara emaniko *El Salmo quincuagésimo*-aren bi bertsioak ikuskaturik, 1867koan *Bustienúzu hisópoz, éta izanenízu garbítric* irakur dezakegu, azentu-markak eta guzti –Samperren itzulpena–, eta 1869koan, aldiz, *Bustienizu isopoz, eta izanenizu garbitric*, hots, azentu-markarik ez, *h*-a kenduta eta *nizu* adizkia bi kasuetan –Bonapartek zuzendurik, itxura osoan–, hau guztia aipatzen ari garen bi eraon arteko lehiaren erakusgarri. Saltsa honekin bukatzeko, azkenik, Satrustegiren *Euskal testu zaharrak* delakoan ustez erarik egokiena aurkitzen dugu, *eta aniz aldiz eznuzu oricen egun guzian avemaria baten errezarza* gisako esaldi bat idatzi baitzuen garaiko predikariak (163 or.). Edozein kasutan, *ni nuzu* edo *nizu* [= 'naiz' –zukako alokutiboa–] eta *zuk ekusi nuzu* edo *nizu* [= 'nauzu'] elkarren lehian ibili bide dira aspaldidanik.

JU: etxá oritzén?

(azken sei adibideek erakusten dutenez *ez + x* elkarketak sandhia gauzatzen dute, Igari eta Itzalleko dotrinetan ere, *etxauna* gisako emaitza ezagunean [= 'ez + xauna'] maiz islatzen dena. Dotrina hauetan *Jauna* eta *Jangoicoa* moduko hitzak gaztelerazko 'jota' hizkiaz idatzirik daude, horrela ahoskatuko ziren seinale zihur asko, beste leku askotan bezala, baina, baditugu orobat, *bassona*, *bashona* eta *bachona* bezalako hitz elkartuak [= 'bai + xauna'], non *ixa*-ren ahoskera ziurtzat jo daitekeen eta, horrenbestez, gaztelerazko 'jota'rena baino aspaldiagokoa dela aditzera ematen zaigun[20])

1-06 CK: nón ego íz, òrai artió?

CK: í ere xín íz kóna

(bigarren pertsonako izenordea, nominatiboan zein ergatiboan dela, *i/ik* dugu beti, aurrenik ezein *y*-rik hartu gabe; pertsona berari egokitu 'nor-nork' eta 'nor-nori-nork' sailetako zenbait adizkitan, ordea, *y* hori itsatsirik azalduko zaigu)

JU: nón ego iz?

(Carmelok eta Javierak, galderak egitean, *egon iz?* gabe, *ego iz?* eman zuten, iraganaldiko galderetan ere Carmelok –1-25 zk.ko adibideak– joera bera erakutsi zuela)

1-07 CK: bai, Espárza dá andiágo Oróntze bèño… dá andíago

CK: káu kén sortu dà

(*ken* hau –*kemen* edota *keben*-en era laburtua–, maiz ageri da gure materialetan, are deklinabide-markei loturik ere)

CK: màrroála? pues… paréte bátian, onkítu, ta berzé paréte batián… xoká edo, unkítu, báita ere; ta kóri dá márröala

(Azkuek, bere hiztegian, honela dio: **Onkitu** 1º (BN-s: eaur), tocar, *toucher*, hitz hau eaurtartzat joz; esaldi honetan, haatik, *on-/un-* aldaera –zaraitzueraz aski arrunta, bestalde– garbiro ikusten da[21]. Azkuek ematen duen 'unkitu' hitzaren adierarako, berriz, ikus 3-17 zk.ko adibideetan)

CK: Ama Bérjina Xúria; deitzén da 'la Virgen de la Blanca', uskáraz, Amá Bérjina Xúria

(Carmeloren materialetan, kolore hau dela eta, *xuri* aurkitzen badugu ere, Salvadorren eta Pablorenetan *xuri* zein *zuri*, biak kausi ditzakegu)

CK: lañúa, kólgatzen dá… bortúan, ta eztá déus agéri!

(*n* bustia zaraitzueraz maiz aditzen da, Eaurtan bildu adibideok lekuko: *lañua, oñez, oañik, aguñara* [= antxumea], *gañeala, altziña, iriña, soiñegian, Berjiña –altzina, irina, soinegian* eta *Berjina* ere bai, haatik–, *gutiño* –'guti'ren xumegarritzat, *gut(t)i*-rekin batera–, *beño* –erkaketan, *bino* eta *ezik*-ekin batera–, *Aburregañean* –herri honetako aetzek *-geinean* ahoskatzen badute ere–, eta *burña* era laburtua. Azken honetarako, baina, 7-09 zk.ko esaldi batean, *burdina* bildu genuen, busti gabe, *zurgina* hitza bezala. *Laño* hitza, bestalde, gaztelerazko 'boira, niebla' da, 2000. urtean ikusi dugun Maria Cruz Esarte andere eaurtarraren arabera)

SK: oái, kében, órai? otsállan, móxten da

(*l* bustia ere sarritan adi daiteke mintzamolde honetan; hona adibide batzuk: *otsalla, billurria, estallu, garilla* eta *opilla –garila* eta *opila* ere bai–,

[20] Samp(eban)ek *Jauna* maiz erabili arren *Ssauna* eta *Bassóna*, aldika, orobat erabili zituen, dotrinan ere *Ssauna* bera –*ssaquin*, *ssin*, *ssaten* eta *ssabe* moduko hitz batzuekin batera– idatzi zuelarik, nondik, hitz hauen hasiera-antzekotasuna kontuan hartuz, ixaren ahoskera garbiro ondorioztatzen den.

[21] Samp(eban): *Eta izaundu baguetacoric edo onquitubague, sortucizun bere lembicico semea…* (1-25) edota *Eta Jesusec luzatuz escua, onquitucizun erranez: Naizut: Gueldizte garbi* (8-3).

llarrena –Uztarrozen *llárnia*–, *ollar/ollo/ollasko, pollit* –bide erdian geratu *pol(l)it* batekin batera–, *tallu/tallatzen,* eta are *fraille* ere –*fraile*-rekin batera–, hitz hau *ll*-rik gabeko mailegua izan arren; bustidurarik gabe, aldiz, *ilar, ilabete, bilatzen, eb(i)li, ilik, makila* eta *mutila* moduko hitzak ditugu, erdizka bustiriko *bil(l)a(tu), il(l)ik* eta *il(l)abete* gisako beste batzuekin batera. Badugu, halaber, *kalles, kal(l)es* eta *kales,* hots, hitz baten beraren era bustia, erdi bustia eta busti gabea, nolabait esanik, Erronkari ibarreko jendea izendatzeko)

SK: batzén da apárte, Ujé

(*batzen* hau 'baratzen' baten laburbilketa dugu, antza. *Ujé* herri izena, bestalde, duela urte asko samar Doroteo de Miguel uztarroztarrak modu berean ahoskatu zuen, eta ez 'Ujué'[22])

SK: béti árztrai (…) uuuh! Bárdeála ta… Tzáragótza ta Huésca ta… kóita; kéndik, kéndik, óñez, óñez; órai yá ez, orái faten dá aníz yá kamiónekin

JK: Jesúsa Xirón… òr dá, or

(Javierrek bustidurak maiz erabiltzen zituen; kasu honetan *Siron* abizenaren lehen hizkia eta, hurrengo esaldian, Itzaltzuko *Besaro* etxearena. Behin, Izaba herriaren izena ematean ere, *Ixába* ahoskatu zuen)

JK: Bèxaró… òstatü a? an, Béxaroáren… peán, étse urá da énea

(gutxitan aditu ohi den *ü* berezi xamar bat dela eta, lan honetan honako laginak bildu dira: *ostatüa, apendizitütik, düte, züten, entzüten* eta besteren bat, kasurik gehienetan *ü* hori *t* baten aurrean dela[23])

PA: atzétzen da

PA: Gàrdaráin… orái, dèsapàrezitúdu (sic) dá… guziá

(Oibarre inguruko Bizkaian kokatu Gardalain herrixka hustuaz esan zuen hori Pablok)

PA: eta… geró (…) Xádában –Arágua… Sadába'rá Áraguaköà[24]–ta…

(Nafarroatik hurbil, Zaragozako "Cinco Villas de Aragón" deritzan esparruko Sádaba eta Sos herrien izenak *x*-z eman zituen Pablok: *Xadaba* –*Sadaba*-rekin batera– eta *Xos*; joera bera erakutsi zuen behin 'soldado' erdal hitzarekin ere, *xoldáö* eman baitzuen)

JU: Kristo xin da mundura, guzien reskatatzera, guazen guziok Belenera, Jesusen adoratzera

(Eguberri-kantu batetik aterata; ikus daitekeenez bera idaztean *-tzra* bukaera laburtu bezain ezaguna, edo ohargabean edo bertsoaren neurriak hala eskaturik agian, ez zen kontuan hartu)

CK: aíze egóten badá aizátzen duté [eultzia] ta bestéla éz

(errotazismoa dela eta, aspaldiko eskuizkribuetan *rz* taldeko adibideak nagusi direnez, litekeena da aurreiritziren bat hor nonbait izatea; haatik,

[22] Artola, K: *Erronkariko uskararen azken hatsak… oraino're* (53. or.).

[23] Mitxelena ez bide zen ohartu arazo honetaz edo, behar bada, ez zitzaion suertatu halakoren bat aditzea, "el salacenco no tiene / ü /, como tampoco el roncalés a pesar de su estrecho parentesco con el suletino" idatzi baitzuen lehen aipatu *Notas*… delakoan, 5. atalean. Mitxelenak, baina, 1958an Ezkarozen eman zioten eta hark berak, aldizkari honetan, *Un catecismo salacenco* deiturapean argitara eman zuen dotrinaren edukia aztertzean, akats batzuez ohartu eta, zehazki *guzien*, *guizien*, *guiciac*, *guziz*, *guizier*… moduko hitzei erreparaturik –zeinetan, agi denez, *u* eta *i*-en arteko zalantza nabaria den– zera ondorioztatu zuen: "*guizien* (pero *guizi- guici-* es demasiado frecuente para ser siempre descuido)"; tarteko soinuren bat erabiliko ote zen, agian, dotrinaren itzulpena egin zen garaian? Guri dagokigunez, azkenik, oraingo lan honetan ageri diren hitzez gainera, Eaurtan berean bildu ditugun beste honakoak ekar ditzakegu hona: *bilatüta, muzüzarko, bülua/bilua*, *errütik/erritik* eta *uskaldünak,* CK-k emanak, eta *agarratrüik,* JK-k emana, hitz honen bukaera benetan arraroa dela.

[24] Zoilo Moso otsagiarrak *Arague* erabili zuen José Estornési bidali gutun batean.

aldaerak maiz adi daitezke, jarraiko adibideek erakusten dutenez: *berze, kainbertze, bertze, be(r)ze, beste* eta *bestela* CK; *berzañez, berze* eta *beste* SK; *berze, bezte* eta *bestala* JK; *berze* eta *beste* PA; *kainberze, berzala, berzte, bertze, berste, bestala* eta *onenbeste* JU. Badugu, halaber, *borz/ogeitabos* gisako bikotea hala nola honen guztiaren isla izan daitezkeen *Salbador(s), ur(s), ur(s)te, ezkurr(s)a* [gazt. 'el pasto' –C. Krutxaga–], *urtzetan* [= 'urtetan'], *arztrai* [= 'artzai'], eta *Uskarztre* moduko adibideak ere, azken hau *Uskarze* ohiko erarekin batera)

SK: bètí… báda zérbäit, báda zérbait

SK: t'oái badá kuadrìlla bát, Irúnberrín…

PA: báda jénde ónik, e?

(harrigarria, agian, ez *yende* ez *xende* ahoskatzea –erronkarieraz *gente*–, hitz mailegatua berandu samar sartu zen seinale, agian; Carmelok eta Pablok ere berdin ahoskatzen zuten[25]. Hona, gazt. 'jota'ren soinuaz Eaurtan bildu dugun beste zenbait hitz: *jinaxaxu* [= 'sinets ezaxu'], alde batetik, eta *jarik ere (ez)* [gazt. 'ni ja'], *junko* eta *juntatzen* moduko erdal hitzak, bestetik, azken honetaz gainera *xunto* eta *xuntatu* gisako eleak bildu baditugu ere. Eaurtako etxe batzuen izenak, diogun bidenabar, *Eskujuri, Jandua, Jabarde* eta *Jolis* dira[26])

JU: eta… nai báda, pues xardóki… uskéra… suábeaz ['xuketan', alegia], *txáuri! txóri!*, eta… 'de tú', *náugi!*

(*uskera/erdera* erabiltzen zuen beti Javierak, eta *uskara/erdara,* gehienetan, Carmelok, gainerako informatzaileek ere, tarteka, hauen guztien aldaeraren bat eman zutela)

JU: bát badá *gútti bat* [esaten omen da] ta… yágo badrá, pues… *ònenbéste*

JU: 'de tú' bàlimadá, *náugi!*

(geroxeago, baina –1-10-b zk.ko adibide batean, hain zuzen–, *enáugi* eta *áugi* emango ditu Javierak, azken honek Zuberoako 'Bereterretxeren khantoria' ezaguna oroitarazten diguna: 'Bereterretxe, haugi borthala…')

CK: labéa dèitzen báita

JU: ta errégua, ya… 'un robo', erráten baitá, ándia(g)o

CK: eztá yor ere, eztáok, uskaldúnik eztiágo'diór ere

(sandhi interesgarria esaldiaren bukaera aldekoa, *eztiagok* + *ior*-en –edo *iyor*-en?– artekoa gauzatua, antza; *eztiagok,* bestalde, *eztaok* baino egokiagoa da)

SK: kén [ardi] txúrra, kén eztá… látxarik (…) kén eztá merínarik

(partitiboaren erabilera ohiko gauza da Zaraitzun; esaldi honetan ditugun adibideez gainera, hemendik aurrera ere honako hauek azalduko dira, besteak beste: *dibersiorik, urik, penarik, berririk, familiarik, eultzirik, onik, beterik, eginik*…)

JK: béstala ez… ézta… mogítzen

(beste anitz lekutako 'mugi' *mogi* dugu hemen; Uztarrozen *mobî*)

PA: etséa oáino ézta erári baia… abántxu

(*etse* –CK, JK, PA eta JU– eta *etxe* –CK, SK, PA eta JU–, biak aditu ditugu; *etxe* Aezkoara eta honen ipar zein hego-mendebaldera hedatzen da, *etse* –*ese*-rekin batera– Uztarrozen eta Izaban aspaldi aditurik gaudela)

[25] Samp(eban)ek ere berdin: *gendec* (9-8), *gendequeta* (8-2), *gendaquia* (14-14), *gende* (14-15) edota *gendeari* (14-19), non ere *g* horiek gaztelerazko 'jota' bezala ahoskatu behar diren.

[26] Kontuan hartzeko modukoak lirateke, era berean, erdal grafiaz ezagutzen ditugun Gembero eta Semberoiz abizenen arteko lehia. Aurkako norabidean legoke, itxuraz (*j* > *s*, alegia), Samp(eban)ek erabili *alforsa* erdal hitza (10-10), Aitor Aranak ere, berriki, Espartzan sortu Antonia Garzia andereari bildu diona, guk, geure aldetik, C. Krutxagaren ahotan, *alpú(r)xa* aditu genuena.

JU: ah, ézta?
JU: bai…; èzta kán?
JU: enténdatzen xú obéki, eztiá?
CK: ezpáita (…) àtrebitzén fátra… béra sólo
(nominalizazioa dela eta, beste hizkera askotan ditugun *-ten/-tzen* bukaerak *-tra/-tzra* dira Zaraitzun –Aezkoan *-tera/-tzera*–, erronkariarrek, soil-soilik, *-tra* izan baldin badute ere)
CK: éniz oróitzen zér egunéz… zér egun dén
(esaldi honetan *oroitzen* gisako era aurkitzen baldin badugu ere 'oritu' moduko adizkia arruntagoa da Zaraitzun 'oroitu' delakoa baino)
SK: ta eztákigú nóiz xínen den
JU: bádakixu zér den pìzontziá?
JU: badákixu Espinál non dán? (sic)
CK: ogía eìten dén… lábea[27]
JU: bertzé gizon, xitén den kòri eré, pues xardókitzen xú óngi uskéra
(*xardoki* aditza era iragankorrean jokatzen denez, *'xiten den korrek ere'* itxaron beharko zela iruditzen zaigu)
SK: obekién-obekién ìten déna ta egúna…
JK: ében… gor, emázte gór… ègon déna, orrék e… eztéike; émendik élkitzra! ya-ya-ya… èmen géldi!
(esaldi honetan, berriz, *orrek* horren ordez *ori* edo *kori* itxaron beharko zen, antza)
JU: ábras'tená, ábrats
JU: pues uskéraz, Gárde bádakixú uskéra déla…
JU: gaur dela Eguberria
(lehen aipatu kantutik aterata, *gaur* hori, jakina, 'gau honetan' dela[28])
CK: xeátzen delarík aski… [*bikorra* edo alea] llarrénian
PA: kòr búkatze'á
(era honetako emaitzak ez dira usu ematen zaraitzueraz)

1-08 CK: xin duk
CK: erári zaidána dúk oník
PA: apézak sáldu daukién étsea dúk zúri
(azken bi adibideetako izenondoak mugatu gabeko egoeran egotea –*(r)ik* partitiboa erantsita ala gabe– oso hizkera honetakoa da, aditza singularrean zein pluralean dagoela. Sintaxia kontuan hartuz, bestalde, adizkia izenondoaren aurretik ageri ohi da, adibideotan argiro ikusten denez)
JU: étsea (…) dúk ániz pollit

1-09 CK: áita eré xín dún, íre ikústra

[27] Zaraitzuar bokalismoaz, besteak beste, zera idatzi zuen Mitxelenak arestian aipatu lanean (2. atala): "generalmente, *e, i* de un lado y *o, u* de otro ante vocal no son silábicas, pero se mantienen distintas entre sí, aunque el observador extraño no siempre acierte a diferenciarlas: *Eaurta* of. Jaurrieta, *ior* 'alguien', *etsea* 'la casa', *eria* 'el dedo', *besoa* 'el brazo', *eskua* 'la mano' (…)". Lan honetan biltzen den materialari behatu bat emanez gero, baina, *-ea* eta *-oa* gisako bukaerak, askotan, aipatu moduan mantendu arren, beste askotan ere *-ëa* edota *-ia,* alde batetik, eta *-öa* edota *-ua,* bestetik, bihurturik azaltzen zaizkigu.

[28] Samp(eban)en itzulpenean honela: *Zuec guciec padecitréuncie escandalo ene gatic gaurr*, hau da: 'Todos vosotros padeceréis escándalo por ocasión de Mí esta noche' (26-31).

(izena zein izenordea + deklinabide-marka erakusten duten esaldiak ohikoak dira zaraitzueraz, inguruko mintzamoldeetan bezala; lan honetan zehar adibide ugari aurkituko du irakurleak)

1-10 b SK: dùxu gáuza bát, bèar báitakí baték nón bear da

(XIX. mendeko Bonaparteren koadroetan *zu* era laburra dugu[29] –xuketan *xu*, noski, jarraiko adibide batzuetan bezala– baina, ikus daitekeenez, era osoak ere bildu ahal izan ditugu; esaldi honen azken hitza, bestalde, behar ez bezalako egoeran azaltzen zaigu)

JK: káu duxú leméziko… zúra

(era honi dagozkion adibideak hona ekartzean *duxu* gisakoa idazteari lehentasuna eman diogu *dixu* delakoaren aurrean –hau XIX. mendetik hona, gutxienez, arruntagoa izan den arren–, hauxe baino zaharragoa eta are egokiagoa delakoan)

CK: aitá eré egón dixú Irúñan

JK: oái, Eàurtáz, xardòkitzen dixú bái, úskära

(*Eaurtan* behar luke, gure ustez, esaldia eman zen testuinguruari men eginez, bederen)

SK: egón xú

JK: Izáltzun xú / Ìtzaltzúköa?

JU: *enáugi* eta *áugi*, iguál xu

JU: mutíkóxko kau fáten xú májo inéz

(*-xko* gisako xumegarri hau, *-xka*-rekin batera Erronkarin ere ezaguna, maiz adi daiteke Zaraitzuko ibarrean, are txikigarri baten xumegarritzat, *mittikaxko* moduko hitz batean bezala –gaztelerazko 'un poquico, un poquirritín'–, adibidez)

JU: fan xú… nuerára… bádoa… zéra, nietára

(1-01 zk.ko ohar batean, balizko sintetiko baten atzetik ibili ondoren *faten niz* eta *faten nuk* moduko adibideak ekarri arren, *badoa* bat ageri zaigu oraingoan –1-07 zk.ko adibideetan *guazen* bat ikusi dugu, kantu baten testuinguruan bada ere–, era honetako adizkiak, itxuraz, lehenagoko denboretan indarrean egon diren seinale. Dena den, *doa* hau, 'joan'etik bide datorrena, ez da ongi uztartzen ibar guztian –edo ia ibar guztian?– ohikoa den edo izan den *fan* aditzarekin[30], adizki hauxe erabiltzen den esparruetan *dae, daie* edota *doaie* izan ohi baita emaitza aztertzen ari garen kasurako, nahiz Eaurta honexetan ere, batzuetan, *fuan, f(o)an* eta hauen antzekoak aditu ditugun, nondik *doa* moduko aditz trinko bat gauzatzea ez den hain ezinezkoa gertatzen. *Nuerara* eta *nietara*[31] hitz mailegatuek erakusten duten *-ra* bukaera, bestalde, *-a* organikodun hitzak mugatzeko Zaraitzun erabiltzen den ezaugarri ezagun bezain bitxia baizik ez da[32])

[29] Satrustegik *Euskal testu zaharrak* delakoan argitara emaniko Zaraitzuko predikuetan asko dira laburbildu gabeko erak, euskara mintzatuan zertzen direnak baino askoz gehiago ezbairik gabe; hona adibide batzuk *nor* sailari dagokionez: *cau duzu* [= 'da'] *mandamentuetan den supremo eta principalena* (161); *Amar dituzu* [= 'dira'] *Jaungoicoaren leguezco mandamendu sanduac* (161), edota *asqui demonio guituzu* [= 'gara'] *guaur ezi aceric gure Jaungoico Soberanoaz* (161), alegia. Adibide hauetako batean, bestalde, *mandamentu* dugu, eta beste batean *mandamendu*.

[30] Ibarreko zenbait dotrinatan, baina, *juan, joaten, yoaten*… gisako erak ageri dira, Itzallekoan nagusienik agian. Litekeena da herri honek, ibarreko hegomendebaldean kokaturik eta Urraulgoitiko auzo herrixketatik hurbil, hauetatiko balizko eragina beretu izana.

[31] Mitxelenak prestatu *Un vocabulario aezcoano, salacenco*… delakoan, 'nuera' *erreña* dugu (180), eta 'nieta' *lioba* (167) zaraitzueraz.

[32] Hona, berriro, Bonaparteren iritzia lehen aipatu *Le verbe basque*… deritzanaren *"Observations"* ataleko XXX orriko ohar beraren beste zatian: "Le *r* euphonique entre deux *a*, qui forme le défini des noms terminés en *a* à l'indéfini, n'est en usage qu'en salazarais; *alaba* 'fille', *alabara* 'la fille', mais il faut pour cela que le nom ne prenne pas de suffixe; *alabak*, *alabaren*, et non: *alabarak*, *alabararen*".

JU: géro báilià!… étxu bérste… dibérsiorìk

(azken hitzak –*dibersio,* berez– era honetako mailegu batzuen bukaerak, zaraitzueraz, *-o* eran mantentzen direla erakusten digu –*oraziöak, operazioa, Diputazioa* eta *konfesiöak* moduko hitzak ere bilduak ditugu Eaurtan–, eta hori bakarrik ez: beste zenbait hizkeratan ditugun 'arrazoi' eta 'montoi' hitz mailegatuak *arrazio* eta *montio* dira hemen, nahiz bestelako bukaera darakusten *ilusione, funzione, kanzione* eta *(er)razione* moduko beste hitz batzuk ere orobat bildu ditugun)

JU: etxú… orái… ikásten daudén… uskéra kóri

(*egon* aditzetiko *dauden* hau era jatorra dugu Zaraitzun, aditz hori baita, *xakin* eta *edoki/iduki* direlakoekin batera, era trinkoan eta erregulartasun osoz ibar honetan erabiltzen den bakarrenetarik bat[33])

JU: ez, kebén ez…-txú errékarik, almádiatzéko; Ezkaróz ta… kórtik igàrtzen dén… ugálde kortán bai, baia kén etxú errékarik almádiatzèko

(*ugálde* hori 'ibai' dugu zaraitzueraz, Uztarrozen, Izaban eta Zuberoan ez bezala: *eguátxa, egútxa* eta *üháitz*, hurrenez hurren; Bidankozen, baina, *ugalte* zuten)

1-11 CK: óri [Ezkarozeko Felipe Samper] eta ní, entendátzen girá óngi [euskaraz]

CK: ez gíra bízi bàizik ere írur

(sintaxiari dagokionez, *baizik ere* hau maiztasun handikoa dugu Zaraitzun, izena, gainera, haren atzetik uzten duela; beste zenbait lekutan erabili ohi den *baizik eta* gisako moldea ez da ibar honetan aditzen)

CK: tä orái… bìzi giá írur

(ibar honetako mintzairak laburbilketak egiteko duen joera oso handia izan arren –beste inongoa baino handiagoa agian, Koldo Mitxelena zenak [*Notas fonológicas*…] aditzera eman zuenez–, zenbait alditan, aurreneko hiru kasuotan bezala eta lehenago ere esan dugun moduan, ez da gauzatzen)

CK: ez grá bízi bàizik ére… írur

(Carmelok, denbora gutxian errepikatu esaldi honetan, batean *gira* eta bestean *gra* erabili zuen. *Irur* zenbakia –edo *iror* bere aldaera– *laur* delakoarekin batera, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari ibarretan bakarrik bildu da azken urteetan –*EAEL-I,* 157-158[34]–. Ildo berekoa dugu *bizpur* gisako hitza ere)

PA: fan grá / xín gra

JU: nóla asi gra?

JU: xíten bagrá Itzáltzurik tenóre ónëan…

CK: ken gëaudék baigrá oník

(Carmelori, hain baitzituen zailtasun handiak era indefinituak emateko, askotan honen gisako esaldiak esanarazten genizkion –kasu honetan 'estamos aquí porque somos buenos'– non, lehen zatia hiketan emanik ere, bigarrena –kausa-menderagailu baten laguntzaz–, bila genbiltzan era indefinitua eman beste erremediorik geratzen ez zitzaion. Gauzatu gabeko balizko sandhi bati dagokionez, bestalde, gaude *gra* adizki laburbilduak ahalbidetasun hori zailtzen ote duen, erronkariarrek ere *bigrá* erabiltzen

[33] Samp(eban) delakoan, baina, *joan* eta *ebili* aditzetatik ateratako era trinko batzuk ikus daitezke, azken hauen artean *zablela* (14-26), *zabiltzaye* (16-8) eta *ciablazun* (26-16), adibidez.

[34] Lehenago aipatu 1729ko predikuan, baina, *irur/irurgarren* eta *laur/laurgarren* irakur daitezke. Predikuak, Ondarrak dioen bezala, goi-nafarreraz idatzirik badago ere, Zaraitzutik hurbilekoa izatearen itxura du; Itzalletik hurbileko Urraulgoiti ingurukoa ote, agian?

baitzuten, Zuberoan –non adizkia laburbildu gabe ematen duten–, ohiki, *beikía* esaten badute ere)

CK: kén akáitzen grelarík, juàten girá erríala

(*juaten* hori bitxia da Eaurtan eta baita Aezkoa auzo-ibarrean ere, *fan* aditzen baita ia beti lehenago esan den moduan; *akaitu* aditza dela eta, bestalde, 'akitu', 'nekatu', 'unatu'… direlakoen sinonimo dena, Uztarrozen ere horrela entzun dugu)

SK: laurogéita amárretrá éltzen bágitrá…

(*gitra* hau maiztasun gutxikoa baldin bada ere, Pedro P. Hualde apaiz bidankoztarrak erabilita aurkitzen dugu aurrenik[35] XIX. mendean. Era hau handik mendebetera –1957an, hain zuzen–, Uztarrozen, aita Kandido Izagirre frantziskotarrak Alvara Garde anderearen ahotik bildu zuen[36] eta duela ez hain aspaldi, halaber, herri bereko Fidela Bernat ahaztezinari aditu genion[37]. Era hauxe, bada, aurrean genuela galdetu genion Javierari ea berari ere ezaguna egiten zitzaion, honek ezezko erantzuna emanez)

1-12 CK: xín gitúk Ezkározerík

CK: gú egón gitúk Irúñan

PA: bíar fànen gitúk Tutrára; bíar fanén gitúk… Zarrákaztélura[38]

1-13 CK: gú eré fan gitún Ezkározera

1-14 b JU: fáen gítxu prozésiora

(gehienetan *fanen* bildu badugu ere, zenbait aldiz, bokalarteko kontsonante likidoaren erorketa dela eta, *faen* adi daiteke, baina balizko *fain* era diptongatura iritsi gabe eta are gutxiago *fein*-era, aezkeraz gauzatu bezala)

CK: fán gixú

SK: égon gíxu

(xuketako alokutibo hauek *gituxu* edo, agian, *gitutxu*-ren laburbilketak dira)

JU: orái fatén gixu

(esaldi hau aditu ondoren balizko era trinko baten aldeko galdera egin genuen –lehenago ere aipatu arazoa, hauxe– ezezko emaitza bilduz, *orái fatén gitxu* izan baitzen erantzuna, aditz laguntzailea ematean hasieran *gixu* eta ondoren *gitxu* ahoskatu bazuen ere)

1-15 CK: nón egón zadié orái ártio?

PA: zé(k) egon zadié Galózen

(lehenxeago esan dena esanagatik, Pablok, herrixka honen izena ematean, ez zuen inolako bustidurarik erabili, C. Krutxagari *Galloxe* bildu bagenion ere)

[35] Hona adibidea: *Zeren guk ekusi baitigu iguzkiaren erkingiuan bere izarra, eta xin gitra ari adoratiagatik*, lehenago aipatu *Jesu-Kristo Gore Jeinaren Ebanjelio Saintiua…* delakoan, José Estornés Lasak argitara emana.

[36] Izagirre, K: *Erronkariko euskal-ondakin batzuk*. Honela mintzatu zen Alvara Garde anderea: *Ezan érran éurire dántzatu gitréla plaztán*.

[37] Artola, K: *Fidela Bernat anderea… (I)*, (254 or.).

[38] Egokiagoa da, gure iduriko, *Zarrakaztelu* hitzaren ahoskapen hau Salvadorrek 1-01 zk.ko adibide batean emaniko *Zarrakastelu*-rena baino, *z* batzuk inoiz, nolanahi ere, *s*-ren aldera lerratu ohi diren señale. *Ezkaroze/Eskaroze* hitzaren kasuan ere, adibidez, lehia horixe dugu, agi denez.

JU: nón egon zadié?… *tzáurdie… táurdie!*
(letra etzanean idatziriko azken bi hitz horiek, Javierak desberdinxe ahoskatu zituen arren gauza bat bera direnak, 'etor zaitezte'ren balioa duten agintera-adizkiak dira)

PA: xín zadé kóna
(XIX. mendeko Eaurtako koadroetan *zradie* agertzen baldin bada ere, XX.aren bukaera aldean *zadie* eta *zade* baizik ez dugu aurkitu[39])

1-16 CK: ta órai, óian kóri… da… Ball(e)árna, ta kára fáten díra, árdiak, béiak, zámariak eta beórrak eta guzíak
(*beor* hitza, lan honetan zehar lau aldiz ageri dena, horrela, diptongatu gabe aditu dugu beti, Arakildik abiatu eta Artzibarrerainoko euskararen hegoaldeko mugan barrena, inolako salbuespenik gabe, *bior* bildurik bagaude ere; Uztarrozen, ordea, *beur* jaso genuen aspaldisko)

CK: autxák, franzésak, esértzen dirá aníz tenplátu
(deitura horrenpean Iparraldeko herritarrak ere –kasu honetan Zuberoako larraintarrak, adibidez– barne hartzen zituen Carmelok. *Eseri* aditza, berriz, 'ezarri', 'ipini' edota 'jarri' gisakoen sinonimotzat har daiteke)

CK: esáminatzén tirá kán, esáminatzen dirá
(esaldiaren lehen zatiko adizkiaren leherkari ozena gorturik ageri zaigu, bitxi bada ere)

CK: kóek éztirá erriála arrimatzén, ez; oianétan ebìltzen dirá

CK: orái ai día, bai, zemáit egúnen igártra
(*igástra* aditzen ote den gaude, errotazismoaren isla izan litekeena. Esaldian dugun *zemait* hitzari dagokionez, berriz –*zenbait* aldaerarekin batera Carmelok berak erabilia–, Aezkoa aldera begira dagoela iruditzen zaigu; ez, ordea, Javierak behin berriro erabili zituen *zomait* eta *zomat* moduko hitzak, hauek, inora jotzekotan, Erronkari aldera jotzen baitute)

CK: ya… urté anitz igàri diá yá

JK: xúntatzen diá, egún, beyékin…

CK: ballékuak diré errí kuek

CK: t'eztíre íltzen korrengátik, ez… éz-ez, fuérte dirá anítz
(Carmelok *dira/dia* eta *dire* erak maiz erabiltzen zituen, ohiko *dra* erabiltzeaz ere gainera)

CK: ya, kainbérze urté pues, átzetzen drá gauzák!

CK: noiznáiden xíten drá ené ikústra

SK: gizónak xín dra

JK: ene etsëan izán dra… seméak

PA: xín dra

JU: ta… bída badrá, ère *táurdie*
(*bida* aditzen da, beti, zenbaki soil gisa; *bi,* izen batekin doanean)

PA: urtíak ere fàten báidra!
(esaldi honi eta jarraikoari behatu bana ematea aski da Pablok eta Javierak, *dra* adizkiari *bait* kausa-menderagailua eranstean, emaitza bera eman ez zutenaz ohartzeko)

JU: nióxu kóntent, xín báitra adízkidiák
(*adizkidiak* horren *z* bitxia da hor, gainerako adibideetan –eta asko dira hauek– *adiski-, adixki-, arixki-, aixki-, arexki-* edota *aexki-* hasierako erak bildu baititugu beti)

[39] *Un catecismo salacenco* izenburuko lanean, ordea, *zrade* dugu, *Benedicatua zrade emazte guzien artean* moduko esaldian. Dotrina hau, 1958an, orduko Ezkarozeko sendagile Pablo Urrak eman zion Mitxelenari, zein herritakoa den ez dakigula. J. M. Satrustegiren *Zaraitzuko euskararen lekukoak* izeneko lanean ere, den den, *zrade* bat aurkitu dugu, *ceradie* batekin bada ere.

CK: egòten drién… egóten d(r)iénian
CK: bai, uskáldunak d(i)relarík bai, urdérará ez, (zuzenduz:) uskáldunak sólo
JU: etxút ikúsi apénas… nóla dantzátzen trén ere
JU: bàia… apéritíböa artú, eta se conoce que dantzátzen tréla… érríko dántzak

(azken bi adibideotako adizkiaren leherkari ozenak –sudurkari baten atzetik doazela– zergatik gortu diren ez dugu ikusten; oroit, halaber, lehenxeagoko adibide batean ageri *esáminatzén tirá kán* moduko esaldiari egin diogun iruzkina)

1-17 CK: fán túk oiániála
CK: Irúñekó… apézak, ègon túk… Róman

(*r* hasierako hitz-mordoska dago Zaraitzun, mintzamolde latinizatua aspaldi sartu bide zen Romanzado ibarreko hizkeraren eraginez, agian; hona, hitz mailegatuetan, Eaurtan bildu batzuk: *ramienta –erremienta* ere bai–, *rantxöa, rastra, rato/ratoxko, rebol(bi), regularki, rekolekzioa/-ziona, rekonozitzra, repartitzen, repetitzen, rezatzen –erzatzen* ere bai–, *rezibitren/rezibituen, romeria, rueda* eta *ruina*. Orobat herri-izenetan: *Ripalda* eta *Rongari –Errongari* ere bai–, esaldi honetan dugun *Roma*-rekin batera, adibidez, baina *Erribra*. Bestelako adibideak –bokal protesidunak, alegia– baditugu hala ere: *arropa, errege, erreka, errota* eta *erreskatatu*, kasu, baina hauetarik gehienak, aspaldi handian, latinetik zuzen-zuzenean sartu eta erroturiko hitzak dira, jakina denez)

CK: ónik túk ónik baitrá

(mugatu gabeko esaldia, gazt. 'son buenas porque son buenas' izatera datorrena; hots, lagun edo gauza bakar batez arituko bagina, *'ONIK DUK ONIK BAITA'* izango baikenuke)

PA: xín túk aexkídiak

1-18 CK: arexkídeak eré fan tún

1-19 b SK: gizónak xín (t)xu / égon txu[40]
PA: xin txú apézak
JU: ya-ya, oráiko bízia! orái, bai, txú bízi… álde kartan

(aditz laguntzailea aditzaren aurretik ezartzea Iparraldeko hurbileko eremuetan –Garazi aldean, besteak beste– maiz egin ohi den bezala, ez da, itxuraz, ohiko gauza Zaraitzun)

JU: ta géro, artsàldián, pelotáriak xitén txu
JU: ta géro yá(e)sta: 'pobre de mí' ta, bukátren txu… féstak

(*-tu* bukaeradun partizipioek erakutsi ohi duten *-tren* geroaldi-ezaugarria –iduriz *-turen* batetik dena–, ez da beti era horrexetan gauzatzen, inoiz edo behin *-trien* edota *-tuen* moduko bukaeraren bat baitugu, *disfrázatrien* eta *rezíbituen* hitzetan ageri moduan. Otsagin ere –ibarreko herri nagusian, jakina denez–, *pásatren, kontátren, guardát(u)ren, abísatren* eta gisa bereko emaitzak bildu ditugu, bitxi samarra iruditzen zaigun *-ko* bukaeradunen bat –*bukatuko, ikusiko*…, azken hau *ekusiren* batekin batera– bildu dugun arren[41])

[40] XIX. mendean bildu aditzetan –zuketan, jakina–, *tzu* gisako oso era laburtua agertzen baldin bada ere, Samp(eban)ek hain laburtua ez den *ditzu* moduko bat ematen du halaber: *Nombre amabienac ditzu cuec* (10-2). Samp(dotr) delakoan ere maiz ikusten dugu *ditzu* hauxe.

[41] Horietaz gainera *-tien* bat ikus daiteke Espartzan bildu elkarrizketa batean: *Ta kén barátien níz* (*EAEL II*, 272 zk.ko testua).

JU: kónan (sic) étxu igáten

1-20 CK: ní ezkóndu nintzán… Eàurtarík Eskározéra
(Zaraitzun *kasatu* hitz mailegatua oso sarturik egon arren, Carmelok eta Pablok *ezkondu* erabili ohi zuten)
CK: ní ere ègon nintzán kán trabàjatzén… bai, mutíko tzárra nintzèlarík…
SK: así nintzan bai, árestión, baia…
PA: xín nintzán Górzarik
PA: f(u)an nintzán…
PA: así… kendík, Irùnberrirík… géro eon nintzán… irúr urtez
CK: ta ní, ní sórtu nintxán (sic) Eáurtan
JU: ta ní… áurra nintzánian…
(esaldi honekin erkatzeko egokiak izan daitezke, agian, bi eta hiru lerro beherago ditugun *gazte nintzalarik* eta *mutiko nintzalarik* gisako adibideak, azken era honetako moldeak, zenbait aldiz, gerundio-itxura izan dezakeela. Molde hauxe, diogun bidenabar, Erronkariko Bidankozen ere erabiltzen zen; Uztarrozen eta Izaban, ostera, harako hura)
CK: … sáutsi nintzála apál
(*sáutsi* eta *sáuntsi*, bietara adi daiteke; Espartzan ere *sáusten da / sáuntsi da* bildu genuen aspaldi –*EAEL-I*, 30–)
CK: len, gázte nintzalárik…
JK: len, mutíko… nintzalarík
CK: léen… sáusten ní(n)tzan… ápal
CK: itzúli nitzán, miratzéko, yá óngi… barátu nitzán, ta…
SK: pues… fáten nitzán… úrriän, setiénbrëan, eta… itzúl pues, máyatzan
SK: oái duéla aspáldi asi nitzán
CK: leén, bìzi nitxán (sic)… Txandréan
(Iruñeko Txantrea auzo ezagunaren izena, era honetan ahoskaturik, lehenago ere aditua genuen, han berean bizi izaniko Celedonia Zenoz, Ezkabarteko andere anoztarraren ahotik)
CK: ni, zortziétárik, nòla… báinítzan zarréna…
(-*tarik* ablatiboaren erabilera erabatekoa da hemen; *nola*, bestalde, kasua-menderagailu gisa erabili ohi da askotan, gazteleraren eraginez, antza)
JK: len, mutíko… nitzalaík…
CK: ni sórtu nìtzeláik?
JU: enitzén erórtzen
CK: ta ezkóndu nitzé, ezkòndu… nitxán, Eskározéko bátekin
SK: ní eón nitzé urrían ta, Táusten
(zenbait aldiz, azken bi adibide hauetan ikusi bezala, iraganaldiko adizkien azken *n*-a ez da aditzen, Aezkoako mintzamoldearen eraginez –*nintze* dute han–, behar bada)

1-21 CK: átzo egón nintzakán Górzan
JU: atzó egòn nintzákan oiánean
CK: egón nitzakán Eáurtan

1-22 CK: átzo egón nintzanán Izáltzun
PA: xín nintzanán Gorzárik

1-23 a CK: átzo egón nitzazún Eáurtan (adizkia laguntzaz emana)

1-23 b PA: atzo xín nintzáxun Itxálerik (sic)
JU: fanén nintzaxún orítuz baia…
JU: ta ordúan entératu nitzaxún…
SK: egón nitxáxun
(Salvadorrek behar baino bustidura gehiago erabili ohi zuen, antza)

1-24 a CK: nón egón zintzán? (adizkia laguntzaz emana)

1-24 b CK: nón egón xintxán xú? (adizkia laguntzaz emana)
SK: átzo nón egon xíntxan?
PA: xín txintxán Igáririk
(sandhi garbia ageri zaigu adibide honetan, zaraitzueraz, askotan, ez-eta ustezko egoera egokian ere gauzatzen ez dena)
JU: ta orítzen xintxán?
JU: ta… lenéko áldian, egòn xintxanián…
(lerro hauetan zehar, *leneko* honez gainera, *len, lemeziko/lemiziko, nasten, atze, zarrena*… gisako hitzak ikus daitezke, inolako hasperenketa-arrastorik gabeak)
JU: ta zér… [xu] egón xinuén? ar(r)ékin ikásten?… míra… fijá xte…!
(kasu honetan Javierak, zertxobait nahasirik antza denez, adizkia era desegokian erabili zuen; *arekin*, bestalde, bai zaraitzueraz bai erronkarieraz, gaztelerazko 'con él/ella' dugu, ohiki, *karekin* 'con aquél/aquella' izan ohi den bitartean)

1-25 CK: atzó nón ego intzán?
CK: ègon itzán Eáurtan
CK: í eré egó itzán?
(Carmelok *itzan* anaiarekin erabili ohi zuen; *intzan* arrebarekin)
CK: xú ere bái, ègon itzán Eáurtan
(Carmelok oraingoan *egon* hori osorik ahoskaturik ere, bi tratamendu desberdinen arteko nahasmena egin zuen, lehenagoko beste kasuren batean bezala)
CK: xín itzalarík érden nitzakán dóstan
(erronkarieraz ere *erden* entzun izan dugu beti [= 'aurkitu'], zubereraz *ediren*; *dosta* hitza, berriz –haurrak jolasean aritzeari esaten zaio honela–, Izaban eta Uztarrozen, *tosta*)

1-26 CK: Sinforíana Narbáez bizí zen níre etsíaren saétsian, karríkara erdían… Sinforiána
CK: oraúnian íl zén bat, ni bíno gaztíago
(*oraunian* horrek erronkariarren *oraigunian* dirudi, 'duela denbora gutxi', alegia, Eaurtan berean esanahi beretsuaz bildu dugun *arastian, arestian, arestion* hirukotearen pare edo, hauetatik azkenak are hurbiltasun handiagoa badarakus ere)
CK: [goldea, nolakoa zen:] pues rámiéntara… lúze bát, deitzen zén nabárra; nàbarrá, ta makìnará, eta aríára, írur… ramiénta
(beste uneren batean, alabaina, *errémiénta* esan zuen; horretaz landara Carmelok *goldea* eta *nabarra* gauza bera dela aditzera eman zuen, baina Azkuek berezi zituen: lehenengoa gaztelerazko 'el arado' omen da, eta bigarrena 'la reja')
CK: alór guziétra fatén zen apéza, bai

(lehen esanikoaren haritik, azken hiru adibide hauetan ere sandhiak gauzatzeko ustezko baldintza onak izan arren, guk oro har ezagutu ditugun zaraitzuarren erabakizun urri samarra –bestelako baldintza batzuetan halakoak gauzatzen badira ere– agerian geratzen da, ondorengo adibide batzuetan ere nekez baizik ematen ez dena)

SK: ta bèrze ánitz faten (t)zén ténbraz Frantziára, lànëála

JK: án gelditzén zen!

PA: ezkóndu zen… zériala, Gárdera; Gardéra éz, Urzáinkíra

PA: atzó xin zén apéza / fan zén, fuán zen, e? / bueno, xín zén zeréki / oái beño… obéki xàten zén órduan

(Pabloren lau esaldi hauetako aditz laguntzailearen hasiera sandhirik gauzatu ez izanaren lekuko dira; joera hau erronkarieratik gertuago dago, gure ustez, aezkeratik baino[42])

PA: ói… lén, izàen zén, guziá… úskera

(*izaen* honetan nabari den bokalarteko kontsonante sudurkariaren galera maiz gertatzen da zaraitzueraz –*faen* eta *erraen* gisako adibideak ere baditugu, adibidez–, era berri hau bere horretan mantentzen dela, *izain* era diptongatura iritsi gabe, ibarretik kanpoko beste anitz lekutan gertatu moduan; *guziá* hitzak erakusten duen azentuera, bestalde, era horretan aditu dugu gehienetan –eta hitza bera bi silabatan ebakia– zaraitzuerazko azentuera, geure iritziz, oso finkaturik ez egon arren)

PA: ba… lé(e)n, Eáurtarik fan tzén, 'órganísta' kúra kára [Organista etxeko gizon hura, alegia]

(nekez bada ere azkenean agertu zaigu, Pablori bildu materialetan, lehen aipatu sandhia agerian ezartzen duen esaldia)

JU: eta pollíta zén, zéra… eskríbitrík, pollíta zén

(*l*-ren bustidurak, kasu honetan, balio afektiboa duela dirudi)

CK: ta badákizú nun àsten zén? Abúrregáñëan

SK: pues… méndian, nón (t)zértzen zen; arbóle pétan, bérdin

JU: xúk pèntsa zaxú zér bízi… izàen zén kúra

(ohiko izenorde eta erakusleak, nominatiboan, *kau, kori, kura, kuek, koyek* eta *kurak* ditugu ibar honetan, Bonaparteren arabera[43], eta *konek, korrek, karek, kuek, koyek* eta *kayek* ergatiboan, gure datuetan inoiz, era horiekin batera, antzeko besteren bat ageri bada ere)

JU: labrári izatëarékin, beár zen lékuala; bázen aitzúrtzra, bázen… údara bazén pues… rèkolekzióna, rekoléktatzra; bázen gári, bázen… zén bezala

SK: lén bazén bèste formá bat, tíña deatzén ta…

(*deatzen* erabiltzen zuen Salvadorrek, *deitzen* Carmelok; biak aditzen dira, beraz, Zaraitzun, Espartzan ere *deatzen* aditurik gaudela)

JK: Maulé… Maulèunérerík (sic), Donextíla, bazén kótxea, zàldiarékin

[42] Hasieran aipatu gure lan batean (*Fidela Bernat anderea… (I)*, 256. or.), *xin zéna / baràtan zénian / izànen zéla* moduko adibideak ikus daitezke.

[43] Bonaparte, L.-L.: *Études sur les trois dialectes basques*… 24. or.; lehenago ere aipatua. Litekeena da, baina, baieztapen hori egitean, printze euskaltzaleak Samp(eban)en itzulpena kontuan hartu izana, honek, koherentzia handiz –eta ergatiboko kasuak bakarrik aipatzeko–, gaztelerazko 'él/ella' eta 'ellos/ellas' izenordeak adierazteko *ura* eta *urak*, eta 'aquél/aquélla' eta 'aquéllos/aquéllas' izenordeak zein 'aquel/aquella' eta 'aquellos/aquellas' erakusleak adierazteko *kura* eta *kurak* erabili baitzituen, gaztelerazko 'de él/de ellos' eta 'de aquél/de aquéllos' –edota 'de aquel/de aquellos'– kasuetarako ere *aren/aien* eta *karen/kaien* erabili zituela. Eta litekeena dela diogu zeren, gure egunotan bildu datuek erakusten dutenaren arabera behintzat, ustezko arau hori ez baita hain erabatekoa, egoera batzuk eta besteak, maiz, nahasirik aurkitzen ditugula.

(*Donexti* horrek Donaixti izatearen itxura du, frantzieraz St. Just-de-Ibarre deitua)

JU: gári bazén, edo ólo bazén edo zernái bázen

CK: kan, gán erráten baitzén: màrruála!

('marro' gaztelerazko hitz mailegatu bat da, jolas-moeta bat izendatzeko)

CK: bazágon kán gizón bat, dedíkatzen baitzén egít(e)ra orráxien

(izena zein izenordea + deklinabide-markaz lehenago egin dugun iruzkina dela eta, esaldi honetan oso deigarria iruditzen zaigu bukaeraren egitura, izena atzera eramanik; Orontzen ere badugu antzeko adibiderik: *hala! sáltzera… almádien,* Severo Azkoiti zenak emana[44])

JU: a lo mejor, guárdia anítz ebíltzen báitzen ta…

(adizkia kontuan harturik multzo baten aurrean gaudela dirudi, hots, gaztelerazko 'mucho guardia civil' edo. Ustezko multzo hauetaz geroxeago jardungo dugu)

JU: etsén xardókitzen báitze(n)

('etxea', harena izatean nonbait, mugatu gabe eman zuen Javierak, hots, gaztelerazko 'pues se hablaba en casa')

CK: almúte bat garìrekín… pintá bat ardòren bíla… tabérnala; ta étzen yágo ellègatzén…!

JK: Itzàltzún ez, Itzáltzun etz, etzén… uskára… xardokítzen

PA: etzén igual éz [erronkariera], nóla… aétzak, èta zaitzuárrak, báita kásik… en distinto!

(azken adibide hauetan aurkitzen ditugun *baitzen* eta *etzen* gisako sandhiak gertuago daude aezkeratik erronkarieratik baino[45])

CK: ta… akàitzen zénian… dantzatúz

JU: ta geró, pikàtu zenían, agótza gendú ta sabaiála

JU: eguérdi xìten zenëan, sú egin, non-náiden ginaudén, eta… kaxóan txúla batzuk erré, eta… (t)zópa batzuk égin kán, kùra xán, úr trágo bát, eta tíra! lanëála

JU: baia, xú'bádakixú diferènte zéla? [zaraitzuera aezkerarekiko]

JU: ta… úrik etzelá [errotan], a lo mejor, ìo bagé, etxéra

CK: apéza xìn zélarik…

CK: il zélarik ere bázakién

CK: Errége-egunían, elkítzen zé kabálgatará, beztítrik, bí zamárirékin

(*elki* hau, zubererazko *elkhi* bezala, 'irten' da iragangaitzean eta 'atera' iragankorrean; erronkarieraz *erkin* dugu hau, balio berberekin)

CK: eskólará é… fáten ze kòrrengatík

(zenbait alditan suertatzen den adizkiaren *n*-ren galera, lehen aipatua, begibistakoa da azken bi adibide hauetan ere)

SK: móxtëa… kán àsten zán máiatzëan

(ixa, orobat, hainbat hitzen barruan ageri da, zenbait alditan, gainera, xumegarriak egiteko; hona adibide batzuk: *aixkide, alpu(r)xa* [gazt. 'alforja'], *axe, axto, axturrak, axuri, berex(i), bexko, gaxorik, goitixeagotto, indarraxia*, *laixterka, luzexeago, maxkla, nexkato, orraxe, urdixuik* [= 'ortutsik'], *xuxen…*; xumegarri soil gisa *-xko* atzizkian maiz aurki daiteke: *ardixko, errixko, finkaxko, mutikoxko* eta *ratoxko* moduko hitzetan, adibidez)

[44] Samp(dotr) delakoan ere adibide bakanen bat bada: *Eta zoin dra cuec? Alimentatcea ayen, eracustea, corregitcea…* (25-26. or.).

[45] Arestian aipatu lanean *(Fidela Bernat anderea… (I)*, 256. or.), *èltu bizén / ebizén* gisako adibideak ikus daitezke.

PA: bázan… ètse, gúzietan
(azken bi adibideetan *zan* adizkia dugu, Zaraitzun batere ohikoa ez dena)

1-27 CK: nóla? pues… áltxátzen yúen, ta bértzëa fáten yúen iá bilátzen zúen
(*altxatu* hori 'ezkutatu' izatera dator, erronkarieraz bezala)
CK: aitá, atzó xin yuén apéza
(Carmelok, noizean behin eta hasieran esan bezala, haren aitarekiko adibideetan hikako tratamendua erabili zuen)
CK: aixkídia eré egó yuén
PA: xín yuén apéza

1-28 CK: aixkídia eré egó yuén
PA: xín yuén apéza
(toka eta nokako sei alokutibo hauetan –guztietan, beraz– *y-* dugu adizkiaren hasieran, hau bokalaren zein kontsonantearen atzetik joan. Hikako era zuzenak eta, beraz, ez alokutiboak ditugun 3-26 eta 3-27 zk.etako adibideetara iristean –*nor-nork* gisako 'huen' erara, alegia–, aipatu *y-* horren agerpenari buruzko iruzkin bat aurkituko dugu)

1-29 a JU: bestála etzínuen pikatzén! [*bikorra* edo alea]
(*pikatzen* hori, *xeatzen* baten sinonimotzat emana da hor, antza)

1-29 b SK: égon xinuén Irúñan
JU: … kéngo uskérara; xinuén klároagó ezik bértze koek
(erkaketa dela eta, 1-26 zk.ko adibide batean Carmelok *bino* erabili zuen: *oraúnian il zén bat, ni bíno gaztíago,* eta *beño* moduko aldaera beste une batean: *Espárza dá andiágo Oróntze béño,* Pablok ere erabili bezala: *oái beño… obéki xàten zén órduan.* Uztarrozen ere bi eretako moldeak ditugu: *ène anaxá dun ní beno fuertiáu*, alde batetik, eta *ez gitún érkinin* (sic) *lén ezik ámar égun*, bestetik –*EAEL-I,* 246 eta 253, hurrenez hurren–)
JU: kében… xardòkitzen xinuén uskéra ánitz, baia…
JU: ta kála! bízi tríste xinuén kúra
JU: conque… además, údan, beàr xinuén… patáka-erría xorrátu, lúr arrimátu patakér
(hona Azkueren hiztegiko adierazpenetarik bat: **-Erri** : 2º (R), sufijo que indica un campo sembrado, *suffixe qui dénote un champ ensemencé.* Javieraren esaldia aurrean izanik argi dago Azkueren adierazpen hori zaraitzuerara ere heda daitekeela)
JU: lo más, lo más, gízon batek [jakin dezake euskaraz Eaurtan –lagun bat baino gehiagorik bada ere–] eta órai, por fuerzas de Dios, gìzon karék (!), òragúnëan, er(r)óri xinuèn elízako… eskàleretán, eta bésoak àutsi; Salbadór(s), eta… ingrésatrik dioxú… Irùñ(e)án
JU: órduan étxinuen kainbérze… bíltzen; orái, gútiago
JU: aitá il xiñuén, berrógéita… emezórtzi urtzétan (sic)
JU: kebén e, eztíxu'zérengatík baia… erdéra anítz ere báxinu(e), bai
(itxurazko *eztixut* hori 'eztiakixut' baten laburbilketa izan daiteke, inoiz esan moduan)

1-30 CK: gu… izán gintzán zórtzi aurríde
SK: fàten gintzán, kendík, Kásedará…

JU: ta géro, pues… xíten gintzán… xíten bagintzán etséra, etséra ta berzalá bórdan lo ìn bear giníxun
JU: ta póbre gin(i)tzanák… póbre
CK: ta kára fatén gitzán, mezá entzútra, ermíta kórtra, Àma Bérjina egúnëan
(harrigarria agian, esaldi honetan, Carmelok *meza* hitzari *-(r)en* genitiboa erantsi ez izana)
CK: ta géro… saustén gitzán erríala; badágo… bidé bat, arreglátrik, ta bíde küra bárna sàusten gitzán erríala
(Carmelok aldi honetan, eta ondorengo beste askotan ere egingo zukeenez, *-ala* bukaera erabili zuen, bitan gainera, 1-01 zk.ko adibide batean ez bezala; esaldian dugun *bide küra barna* gisako esamoldeari gagozkiola, berriz, 3-37 eta 3-77 zk.ko adibideetan *karrikara gaindi* moduko beste bat, antzekoa gure ustez, erabili zuen informatzaileak)
CK: pues kán, kárrikàn, xókatzen gitzán… pues, ániz xókotra
('xokatu' hori, Azkueren hiztegian adiera horrekin agertzen ez dena, 'jostatu' edo 'jolastu' direlakoen sinonimotzat hartu behar dela iruditzen zaigu, aditz iragangaitzarekin egokiro erabilia; beste uneren batean, dena den, *dostan* –gazteleraz 'jugando'– erabili zuen)
PA: eta bizí zeár egòn gitzán… xúnto, artzái
CK: eta xìn gintzén Irúñára
SK: Galípén(t)zuik èz, kándik ez gintzén igási [= igari]
(aditza dela eta, sandhirik gauzatu gabeko egite baten aurrean gara, *z* eta *k* kontsonanteen arteko jokoan Javierak, 3-35-b zk.ko adibideren batean, *ezkinixun* moduko era gauzatua erabili bazuen ere, gai honetan Eaurtako informatzaileek oro har erakutsi duten finkotasun handirik gabeko isla, behar bada)
CK: Espárzarik xín gintzélarik…

1-31 CK: egón gintzakán
SK: egún (sic) gintzakán gu bíok kan, bordán, kan, nietarekín… kótxëarekín, Remúndira, kan
(Remendia izeneko lekura, alegia. Carmelo Krutxagak ere, behin, *múnditik* ahoskatu zuela iruditzen zaigu, *ménditik* itxaron beharko lukeen lekuan. Ebakera hauek, agian, lehenago aipatu *ü* bokal berezi xamarretik aski hurbil egon daitezkeela iruditzen zaigu)
PA: xin gintzákan Gorzárik
CK: gú eré egón gitzakán
(Carmelok, tokako alokutibo hauetan, *gin-* eta *gi-* hasieren arteko zalantza erakutsi bazuen ere, hurrengo adibidean –nokakoan, alegia– *gin*-en aldeko ziurtasuna agertu zuen)

1-32 CK: fan gintzanán Igárira
PA: xin gintzánan Uskárzerik
(gure apunteetan *gintzána*; honela eman ote zuen, agian?)

1-33 b SK: egón gintzáxun / egón gintxáxun
(Salvadorren bigarren erantzunean bustidura bikoitza dugu, gehiegizkoa, antza)
JU: fatén gintzaxún alòrrëalá, tálluarekín… tallériá gizóna, ta… ta màxklariá emaztékia
(*tallu* hori 'sega' da, noski, gaztelerazko 'guadaña'; *maxkla(ra)*, berriz, '(el) brazaö' dela esan zuen Javierak)
JU: xeikítzen gintzaxun, góiziàn… góiztar

JU: ta géro bi áinzpa baràtu gintzaxún

(era honetako sudurkaritzeak ohikoak ez izan arren, bai adibide honetan bai 3-40 zk.ko beste batean nabarmenak iruditu zaizkigu[46])

JU: ta kála manténatzen gintzaxún

(Javierak, gazteleratik hartu *entendatzen* eta *mantenatzen* moduko hitzak ematean, *-atzen* bukaera erabili ohi zuen, Carmelok, inoiz, *entenditzen* erabili bazuen ere)

1-34 CK: nón egón zintzáen?

1-35 CK: bízi zíren… ániz póbre

CK: ta fán zirén gib(e)létik

CK: koék, zirén, láur anáe… ta íl zirén bída

(Carmelok, ergatiboko adibideetan, *anáiak eré* –batek, alegia (3-69 zk.)– *sáldu ztikán*, alde batetik, eta *anáek eré* –batzuek (3-19 zk.)– *erósi dién ógia*, bestetik, erabili bazuen ere, kasu honetan, orobat, *anae* eman zuen –Aezkoan *anea bat* eta Izaban *anaxe bat* aditurik gaude, aspaldi–, ziurtasun ezaren isla, agian. Lanean zehar ageri diren *baia/baëa, Irabea* ['Irabia' toponimoa], *kaek/ka(i)ek, deitzen/deatzen* moduko hitzetan zertzen den bokalen itxiera, irekiera edota desagerpena aski arrunta da zaraitzueraz, bildurik ditugun *beiak* eta *beyekin* hitzetan gauzatu ez bada ere, Aezkoa aldean, Artzibarko Arrietan eta Esteribarko zenbait herrixkatan *beak* jasorik baikaude. Honen guztiaren finkotasunik eza kolokan ezar lezaketen *baietz, maiatzëan, oianian, apeza, ameka, bezik* eta beste hitzen batzuek darakusten emaitzak ere kontuan hartzeko modukoak direla iruditzen zaigu, edozein azterketa egiterakoan)

CK: ta fáten zirén erríz errí sáltzra, érri kaëtán guziétan

(azken urteetan eztabaidatu den arazoa dugu hauxe: 'herri haietan guzietan' ala 'herri guzti haietan'? Euskaltzaindiaren gomendioa aurrenik idatzi denaren aldekoa izan dela; bada horrelaxe ikusten dugu, zaraitzueraz, lan honetan ageri den adibide orotan: *errí kuetán guziétan* –1-35 zk. honetako beste esaldi batean ere– CK; *kóri guziá* –2-17 zk.– SK; *sàgar koék guziák* –2-44-b zk.– JU; eta *gáuza koék guziók* –3-68 zk.– CK, besteak beste, adibidez[47])

CK: etzirén gósëak egótén ez

(esaldi honen bidez 'goseak egon' gisako esamoldeak zaraitzueraz ere, ezagunak izan ez ezik, indarrean egon direla ikus daiteke[48])

CK: patákak egósi tzërén bézkótik

[46] Mitxelenak, haatik, *Un vocabulario aezcoano, salacenco…* delakoan ageri den *ainzpa* hitzari (161) eskaintzen dion iruzkintxoan zera dio: "Creo haber oído siempre *aizpa* en Salazar; *ainzpa* no figura en Azkue".

[47] Samp(eban)ek ere horrela: *eta encontratzeintzien curac guciac* (22-9), *zuec icustéintzienean gauza cuec gucioc* (24-33), *cumplidadien bitartio cori guciori* (24-34), edota *baya correquin guciarequin ere* (26-39), kasu.

[48] Samp(dotr) delakoan, aldiz, *Bigarna ematea ssatra goseduenari* (31. or.) eta *Yrurgarna ematea edatra egarriduenari* (32. or.) moduko adibideak ikus daitezke. Bitxi samarra iruditzen zaigu Eaurtako apaizak erdal kutsuko egitura hori erabili izana, hizkera mintzatuan hori baino egokiagoa dena XX. mendearen bukaera arte mantendu dela ikusirik. Edozein kasutan ere, Itzalleko dotrinan *Bigarna, Goseac dagonari sátra ematea* eta, *Yrurgarna, Egarriac dagonari edatra ematea* moduko esamolde jatorrak ditugu; Igarikoan, *Vigarna, goseac dagonari shatra ematea* eta *Hirurgarna, hegarriac dagonari hedatra ematea*; eta Mitxelenak argitara emaniko *Un catecismo…* delakoan ere, azkenik, *Bigarrena goseac dagonari edatra ematea* (hirugarrena idaztea ahantzi bide zitzaion itzultzaileari).

JU: bàia… eblí(t), èb(i)li xirén anítz… kében
(azken adibide honetako adizkia nekez adi daitekeen arren, aurreneko guztietan laburbildu gabeko erak ditugu, guztiak lagun bakar bati zor bazaizkio ere)

CK: len, gázte nintzalárik, ené sortú étsëan, bazién árdiak eta aúntzak… zámáriak, bèorrák… eta mándo bát eta ástoa

CK: kòtxëák, así zrén ené dénburan
(*denbura* honek, laburbildu gabeko egoeran egoteaz gainera, ohikoa ez den *u* bat darakus *o* baten ordez; ez da kasu bakarra ordea, arestian *egun* ['egon'] batekin egin baitugu topo eta 10-37 zk.ko adibideetan ere –lanaren 3. zatian– *zenbruna* bat aurkituko baitugu. Espartzan, aitzitik, *laronbat*[49] bildu genuen aspaldi, 3-31-b zk.ko adibide bateko aipamenean ikusi ahal izango den moduan)

SK: emázteak sólo bàrtzen zren kén
(*solo* hau oso sarturik dago Zaraitzun eta egon zen, era berean, Erronkari ibarrean ere. Adibide honetan aditzondo gisa hartu behar dela iruditzen zaigu; ez izenondo gisa)

PA: átzo xin zrén apézak

JU: nòngo zrén? amá kéngo… ta áita goétiko… azkén etséköa
(esaldi honen azken hitza mugatua egon arren –azkenekoa izateagatik, agian?– lehenagoko *kengo* horrek zaraitzuerak leku-adberbioak mugagabean emateko ohikoa duen joera erakusten du: *kengo, San Sebastianeko, Aburreko…*)

JU: ta… usté nixún bí kláse zrén, baia…
('uste' aditzarekin eta besteren batekin –'iduri' behar bada– *-(e)n* izan ohi dugu adizkiaren deklinabide-marka mintzamole honetan eta inguruko beste batzuetan, eta ez *-(e)la*[50])

JU: mándo edoz (sic), ásto edo zernáiden zrén, etséra kárria
(*karria* hori ekialdetik kanpoko mintzamoldeetan ohikoa den *-tu* bukaeraz gabeturik dago; 3-04-b eta 3-28 zk.ko adibideetan ere *lei* eta *utz* moduko aditzak aurkituko ditugu, eta 6-45 delakoan *sal*, ez horiek ez hau ahalera, agintera zein subjuntibo-egoeran egon gabe)

JU: bukàtzen zrénian, hala!, errotála

JU: zóritzen zrènian gáriak… txúkatzen zrénian!
(**zoritu** hitza dela eta, hona Azkuek zer dioen: 1º madurar, *mûrir;* eta TXUKATU hitzari dagokionez, berriz, zera hau: 1º agotarse, secarse, *enjugarse*: *s'égoutter, se sécher*)

CK: xin zrelarík, guziák…

CK: errí kuetán guziétan, elkítzen z(r)én almadíak urétik

CK: be(r)zéak íl z(r)én Buenós Airesen

1-36 CK: erári zaizkikún sagárrak yituén ónik

PA: xin (y)ituén Ripáldarik

CK: aixkídiak eré egó ituén

[49] *Un vocabulario…* delakoan *larumbat* ageri da (37), baina Mitxelenak, bere iruzkinean, "En Salazar he oído siempre laronbat" idatzi zuen.

[50] Aturri ibaiaren ertzetan Baionarekin mugatzen duen Mugerreko portuan ere –Bonapartek zaraitzuera sailkatu zuen ekialdeko behe-nafarreraren esparruko guztiz beste muturrean, beraz– *oái, baut úste Mugérren sortúiak diren, e?* moduko esaldia bildu diogu 1996an han berean sortu Jean Labat jaunari. Joera hau, baina, ez da esparru horretara bakarrik mugatzen: Aezkoaren hego-mendebaldean kokatu Artzibarko Saturnino Etxamendi arrietarrari ere, *ník usté, óri dén kóntúa*, eta *ník usté… ordúen… izéin zé kóntu gói* moduko esaldiak bildu genizkion aspaldi (*EAEL-II*, 215 zk.ko etnotestuak), besteak beste.

1-37 CK: aixkideí erári zitzaiztén etxéak yituén ándi
PA: xin yituén aexkídiak
CK: atzó anáiak ego ituén Oróntzen
(toka eta nokako adibide hauetako adizkien hasieran zalantzazko edo, behar bada, hautazko *y-* bat ikusten dugu, singularrean ez bezala: *yuen)*

1-38 b SK: kén fáten zintxán, ánitz fàten zén… ártzai
(hots, 'zu etorri zinen' eta 'haiek etorri ziren' kasuetarako emaitza bera dugu: *zintzan*, baldin zuketan bada, eta *xintzan*, xuketan bada, azken honen bigarren silaba, gehienetan, bustirik agertzen zaigula –*xintxan*–, hurrengo esaldietan ikusiko denez; izan ere pluraleko 3. pertsona honetarako ustez izan beharko genukeen *'XINTUEN'* adizkia –xuketaz ari garenez– *xintzan* edo *xintxan* era balioaniztunak lotsagabeki ordezkatu du denboraren etorrian. Ordezkapen hau, baina, ez da gauzatu ekialdeko behe-nafarreraren ez zubereraren esparruetako –erronkariera barne, Bonaparteri jarraituz gero bederen– beste inongo hizkeratan gauzatu)
SK: aixkídeak eré egón xintxán Irúñan
SK: fán den úrteán eré egón xíntxan
PA: xín xíntxan
JU: áitatamá, xintxán, áma ètseköá eta aitá… bárrio… etsé ondóköa
(aldi honetan Javierak *-ko* deklinabide-markak mugatu egin zituen)
JU: bai, bai… bueno! gizónak eta guziák… disfrázatrien xíntxan! bai, kárnabal bát májo (…) muzúzárköak, muzúzuzárkuak (sic)…
(Javierak aditzaren geroaldi-ezaugarria *-trien* ahoskatu zuen aldi honetan, *-tu* bukaerako partizipio burutuetan, ohiki, *-tren* izaten baldin badugu ere[51]. Horretaz kanpo, *muzuzuzarkuak* hitzaren lehenengo bi silabak ahoskatzean oso era sudurkaritua erabili zuen –Carmelok, hitz hau erabili zuen bi une desberdinetan, bietan, *muzüzarko* ahoskatu zuen–; hona, bada, lehenago ere aipatu den *u* eta *i* bokalen arteko lehiaren zantzua)
JU: baia… iótëak… óngi ínik, e? iótëak ìten xintxán óngi; ióte… karnábal-adárra xinuén ióte
JU: emáztek ere fàten xíntxan ta orái…
(*emáztek* hau era mugagabean dagoela iruditzen zaigu, hots, gaztelerazko 'mujeres también iban …')
JU: guárdiak… etsétarik egòten xíntxan
(ez dirudi *etsetarik* hau egokia denik, *etsez etse*, *etserik etse* edo hauen antzeko besteren bat itxaron beharko baitzen, agian)

[51] Samp(eban) delakoan ere berdin: *concebitren*, *sortren* eta *artren*; eta *-i* zein *-n* hizkiez bukatzen direnekin, + *en*: *eserien*, *itzulien* eta *erdietsien*, alde batetik, eta *izanen*, *erranen* eta *eguinen*, bestetik.

TAULA 2
Aditz laguntzaile iragangaitza (*nor-nori*):
2-01 - 2-20, orainaldiko singularra; 2-21 - 2-40, iraganaldiko singularra.

adizki-zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
2-01	zait	zaida	zaida
2-02	tok. alok	ziaidak	ziaidak
2-03	nok. alok	ziaidan	ziaidan
2-04 a 2-04 b	zuk. alok xuk. alok	ziaidazu	ziaidaxu
2-05 a 2-05 b	zaizu id. (xuka)	zaizu	zaixu
2-06	zaik	zaik	zaik
2-07	zain	zain	zain
2-08	zaio	zayo	zaio
2-09	tok. alok	ziok	ziok
2-10	nok. alok	zion	zion
2-11 a 2-11 b	zuk. alok xuk. alok	ziozu	zioxu
2-12	zait	zaiku	zauku, zaiku
2-13	tok. alok	ziaikuk	ziaukuk, zaikuk
2-14	nok. alok	ziaikun	ziaukun, zaikun
2-15 a 2-15 b	zuk. alok xuk. alok	ziaikuzu	ziaukuxu, zaikuxu
2-16	zaizue	zaizie	zaizie
2-17	zaie	zaye	zaie, zae
2-18	tok. alok	ziayek	ziaek, zaek
2-19	nok. alok	ziayen	ziaen, zaen
2-20 a 2-20 b	zuk. alok xuk. alok	ziayezu	ziaexu, zaexu

adizki-zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
2-21	zitzaidan	zizaidan	zitzaidan
2-22	tok. alok	ziziaidakan	zitziaidakan
2-23	nok. alok	ziziaidanan	zitziaidanan
2-24 a 2-24 b	zuk. alok xuk. alok	ziziaidazun	zitziaidaxun
2-25 a 2-25 b	zitzaizun id. (xuka)	zizaizun	zitzaixun
2-26	zitzaian	zizaikan	zitzaikan
2-27	zitzainan	zizainan	zitzainan
2-28	zitzaion	zizayon	zitz(a)ion
2-29	tok. alok	ziziokan	zitziokan
2-30	nok. alok	zizionan	zitzionan
2-31 a 2-31 b	zuk. alok xuk. alok	ziziozun	zitzioxun
2-32	zitzaikun	zizaikun	zitzaikun
2-33	tok. alok	ziziaikukan	zitziaukukan, zitzaikukan
2-34	nok. alok	ziziaikunan	zitziaukunan, zitzaikunan
2-35 a 2-35 b	zuk. alok xuk. alok	ziziaikuzun	zitziaukuxun, zitzaikuxun
2-36	zitzaizuen	zizaizien	zitzaizien
2-37	zitzaien	zizayen	zitzaen
2-38	tok. alok	ziziayekan	zitziaekan, zitza(i)ekan
2-39	nok. alok	ziziayenan	zitziaenan, zitza(i)enan
2-40 a 2-40 b	zuk. alok xuk. alok	ziziayezun	zitziaexun, zitzaexun

<u>adizki-zk</u> <u>adibideak</u>

2-01 CK: átze zaida
CK: baia órai, burúa nàsten záida
SK: átze zaidá ániz gáuza
(Carmelok, aldiz, 2-41 zk.ko erantzunerako, *orái yá aníz gáuza… àtze záizta* eman zuen, adizkia pluralean, baina badirudi informatzaileek, oro har, *anitz, bizpur, zomait/zemait* eta, nolabait esateko, multzoak-edo adierazteko balio dezaketen hauen gisako hitzak erabiltzean, aditza singularrean emateko nolabaiteko joera zutela, hau erabatekoa ez izan arren)
SK: ilusióne guziák, fáten zaida, guziák!
(adizkia singularrean emana, objektua, bitan gainera, pluralean egon arren)

PA: erári záida
CK: erári zaidána dúk oník
SK: tokátzen zaidanëán errietán, erriétan
PA: además, xíten zída… emázte bat
(gaztelerazko makulutxoak noiznahi adi daitezke; hona batzuk, *además* honetaz gainera: *conque, lo más, lo menos, por fuerzas de Dios, por fuerzas, así que, pues, porque, se conoce que, a lo mejor, apenas, ya, pues tal como, sin embargo…* eta beste[52])

2-02 JU: érre ziaidák
CK: erári zaidák sagárra / erári ziaidák
(azken erantzuna egokiagoa da, antza, bestea baino; dena den, hasiera batean, 'se me ha caído la manzana' gisako galderari emaniko erantzuna zera izan zen: *útzi diát sagárra erártzra*)
PA: erári zaidák

2-03 JU: érre ziaidán
CK: erári zaidán sagárra

2-04 b JU: geró, atzé ziaidáxu (…), átze zidaxù, átze, átze…
JU: baia eztiákixut, átze ziaidáxu
JU: bersté korí etxíxun, (zuzenduz:) ení etziáidaxu… [atsegin]
(izenordeak direla eta, lehenengo pertsonarako, datiboan, *eni* eman digute beti Eaurtan eta genitiboan *ene*; Uztarrozeko Fidela Bernat zenak, baina, azken hau berdin emanik ere, *niri* eman ohi zuen kasu hartarako[53])
SK: erári záidaxu ógia
PA: erári zaidaxú
JU: así que, txókatzen zidaxú zúek… entendátren zienéz uskéra
(*-(e)nez* menderagailua, lan honetako materialetan bakan azaldu zaiguna, Zaraitzuko beste herriren batean ere bildurik gaude[54])
JU: etzídaxu gustátzen
(era honetako alokutiboek tartekaturik erakutsi ohi duten *i* ezaugarria –kasu honetan *ia*– janik aurkitzen dugu maiz, are informatzaile baten beraren mintzamoldearen baitan ere)

2-05 a CK: zurí eré erári zaizú

2-05 b PA: erári záixu
JU: ta zér in… zér e… úste zaixú íten ginuén?

[52] Orontzeko dotrinaren itzultzaileak, ohargabean nonbait, honako pasarte hau idatzi zuen halako batean euskarazko testuan barnesarturik: *P. Espiritu Sandua daya Aita edo Semea? R. Ez Jauna. P. Porq.? R. Porque las personas son distintas aunque baita Jaungoicobat bera berdaderoric.*

[53] *Fidela Bernat anderea… (1)* izenburuko lanean, 269. orrialdian bereziki.

[54] Otsagin, adibidez, *eztákit erráten dutánez ník* eta *baia… orí eztákit létran exértzen denéz kàin áisa* moduko esaldiak bildu genizkion, aspaldi, Liboria Contín izeneko andreari. Erronkari ibarrean bildu zenbait lagin ere badugu; Izaban, adibidez, *eta abér banakiénetz… Nabidádeko billanzíkoak* edota *abér e… gústatu zaióinetz oraigúneko… fiestá, bai?* gisako esaldiak bildu genituen aspaldi (Artola, K.: *Erronkariko uskararen…*, FLV 25, 1977), eta Uztarrozen ere, *eztakiár, zrénez bordáltu(k) ala zrénez neskáto* edota *pues eztakiár erráitan duránez ónki eré* moduko beste esaldi parea dugu, besteak beste (Artola, K.: *Fidela Bernat…(1)*, FLV 58, 1991).

JU: zér uste zàixu… bízi zen kúra?
(*uste* horiek 'iduritzen'en sinonimotzat erabiliak dirudite[55])
JU: así que… gustátzen zaixú *xu*?
SK: xúri eré erári xáixu
(inkesta egitean Carmelok *zaizu* eman zuen –zukako erantzuna, lehenxeago ikusi bezala–, Pablok eta Javierak *zaixu*, eta Salvadorrek *xaixu*, adizkiaren lehen hizkia –gure ustez– beharrik gabe bustiz)

2-06 CK: irí eròri záik
PA: erári záik
CK: eròri zaikána…

2-07 CK: erori zain

2-08 CK: àitarí èrre zaió étxëa
SK: apézari erári záio
JU: áita, nióxu tríste… lagúnarí èrre baitzaió etséa
CK: erári zaióna ere bái

2-09 CK: erári ziók sagárra
JU: aitári èrre ziók… étsëa

2-10 CK: erári zión

2-11 b SK: apézari eré erári zióxu
JU: bai, pues kóri gustátzen zióxu!

2-12 JU: gúri erré zaukú étsia
JU: aitá, giáudetxu tríste, porque erré baitzaukú etséa
(hona, 'gaude' era trinkoaren xukako alokutibo jatorra, *i*-a behar bezala tartekaturik. Javiera zen, agian, Eaurtako informatzailetan, alokutiboak egokien ematen zituena, lanean zehar agerian geratzen denez)
SK: gúri erári záiku
SK: kóri guziér xínen zaiku, guziér
(*guzier* hauek 'guz(t)iei' dira, ekialdeko euskalkietan *-er* atzizkia berezkoa denez)
CK: erári zaikúna…
(*zaiku* eman zuten Salvadorrek eta Carmelok, XIX. mendean bildu bezala –Otsagin eta Orontzen ere horrela jaso dugu–; *zauku* Javierak. Baina azken era honi egokituriko alokutiboak –*i*-a tartekaturikoak, alegia– ongien eman zituena andere hau izaki, honen ahotiko emaitzei eman diegu lehentasuna tauletan kokatzerakoan. Aldaera hauek eta antzeko beste batzuk, zernahi gisaz, *ekialdeko behe-nafarrera*-ren esparruko beste zenbait lekutan ere arrunt samarrak dira, inkesta egin dugun Espartza herrian, adibidez, *zaugi* bildurik gaudela)

[55] *Uste* eta *iduri* aditzei buruz 1-35 zk.ko adibideetako esaldi bati egin iruzkinean esan duguna esanagatik, Espartzan aspaldi bildu genuen elkarrizketa batean *idúri… déus eztéla* irakur daiteke (EAEL II, 272 zk.ko testua). Horra hor, bada, zalantza, 'iduri' horrekin *den/dela* erabili beharrari dagokionez.

2-13 JU: érre ziáukuk guáuri
(*guauri* horrek intentsitatea azpimarratzen du; galdera hau, ziurrenik, jarraian agertzen denaren ostean egin zen)
JU: gúri érre ziaukík étxea
('hura guri' gisako kasu hauetan ez Javierak ez bestek ez zuten modu berean jokatzen, erantzunen arteko nahasmena nabaria baita. Espartzan, azken adibide honetako emaitzatik hurbil, *ziaugik* bildu genuen)
CK: erári ziaikúk / erári záikuk
(lehenengo erantzuna egokiagoa da, itxuraz, bigarrena baino)
PA: érre zaikúk

2-14 JU: érre ziáukun
CK: erári zaikún
PA: érre zaikún

2-15 b JU: érre ziaukuxú
JU: gúri èrre ziáukix(u) étsea
(Javiera honek –lagun batek berak, alegia–, adizki hauek ematean hainbat zalantza erakutsi zuen, batzuetan *ziauku-* eta besteetan *ziauki-* eman baitzuen, 2-13 zk.ko galderari emaniko erantzunetan ere ikus daitekeenez)
SK: gúri erári záikuxu

2-16 CK: zér erári zaizié
PA: zér eré érre záizie
(*zer* hauek 'zuei' dira kasu hauetan; ez dira, beraz, galdera)
JU: gustàtzen zaizié *xú*
JU: gustátzen zaizia *xú*?
(adibide honetan, *-a* galdetzailearen ondorioz –*zaizie* + *a*–, *zaizia* gisako emaitza dugu)

2-17 CK: erári zaiéna…
SK: kári guziá xínen záe guziér!
PA: érre zaé
CK: óngi xíten zaènián!

2-18 CK: erári ziaék
JU: erre ziaek
SK: erári záek
PA: érre zaék

2-19 CK: erári ziaén
JU: erre ziaen
PA: erre zaen

2-20 b SK: erári ziaéxu
JU: erre ziaexu
PA: érre zaéxu

2-21 CK: tokàtu zitzaidán… kánpo elkítzra, lemíziköa
(*lemiziko* horretan nabari den *nb* > *m* gisako egokitzapena *zomait/zemait* zein *zomat* moduko hitzetan aurki daiteke beste zenbait kasutan ere)
PA: érre zaidán

SK: tokátzen zaidanëán errietán, erriétan
(erka bedi kasu honetarako Carmelok eman erantzuna Pablok eta Salvadorrek emanikoekin, adizki hauetako lehenengo silaba galdurik aurkituko baitugu maiz; hots, *zitzaidan* → *zaidan* moduko laburkilketak guztiz ohikoak dira)

2-22 JU: erre zitziaidakan
CK: atzó erári zitzaidakán éni

2-23 JU: erre zitziaidanan
CK: atzó erári zitzaidanán (adizkia laguntzaz emana)

2-24 b JU: bàia… aitá il zitziaidaxún fíte; berrogéita… berrogèita zórtzi úrtetan… aitá íl zitziaidáxun, ta éni tókatu zítziaidaxún…
JU: bérste korí eztíxun, (zuzenduz:) ení etziáidaxun… [ezagun egiten, edo]
SK: átzo étxea érre zaidaxún, érre zitzaidáxun
JU: beártu tzidaxún gizón bat etsèra bildú, lanárengatik
(bitxi da *tzidaxun* honen hasierako afrikaria aurrean bokal bat duela, are gehiago inoizko kontsonante urkari baten atzetik afrikari horixe gutxitan gauzatzen dela kontuan izanik, adibide askotan ageri bezala)

2-25 b SK: zúri eré érre zitzáixun, érre zaixún
(hemen ere, izenordea zuketan eta adizkia xuketan dugu; Salvadorrek, gainera, *érre xíntxan* desegoki bat eman zuen aurrenik)
JU: xúri érre zitzáixun étxea, fán dén úrtian

2-26 CK: erári zitzaikán / erári zaikán
SK: erári zitzáikan
CK: erári zitzakán
CK: erári zaizikán
(Carmelok eman azken aldaera honetan metetasia egon liteke, agian)

2-27 CK: erári zitzainán

2-28 SK: érre zaión étxea, érre zitzión, érre zitzaión
(azken *zitzaion* hau laguntzaz lortu bagenuen ere, plurala eskatzean Salvadorrek era hauxe eman zuen berez –singularrean eman baldin bazuen ere–, adizki hau haren mintzamoldean ohikoa zen seinale; XIX. mendean, dena den, *zizaion* bildu zen, azken denboretako erarik zabalduena *zitzion* izan arren)
CK: atzó, apèzarí, èrre zitzión étsëa
CK: emáztia íl tzitzión
CK: bai, Quintín Udi… ìl tzizión emáztia
(Carmelok emaniko bi kasu hauetan bai, sandhia gauzatu zen, nahiz azken adibide honetako adizkiaren baitan, agian, sandhia baino gehiago afrikariaren lekualdatzea egon litekeen)
JU: fàn den úrtian érre zitzión étxea
JU: áita, nióxu tríste, abuélori érre baitzitzión étxea
CK: erári zitzaikón sagárra yuén ónik

2-29 PA: erári zitziokán
JU: abuélori érre zitziokán
CK: erári zitziakokán sagárra / erári zitzokán

2-30 PA: erre zitzionan
JU: érre zitzionán
CK: erári zitziakonán sagárra / erári zitzonán

2-31 b SK: érre zitzióxun / érre zioxún
JU: etxèarí eré aténditzen zitzióxun

2-32 CK: erári zitzaikún sagárra…
PA: érre zitzaikún
(damurik, Javieraren erantzunaren ments gara, nahiz jarraiko alokutiboak ikusiz gero *zitzaukun* bat itxaron beharko zela iruditzen zaigun)

2-33 JU: orái duéla amár urté, érre zitzíaukun…-kán etséa, érre zitziáukukán
CK: erári zitzaikukán
PA: érre zitzaikuán / érre zaikuán / érre záikuan

2-34 JU: erre zitziaukunan
CK: érre zitzaikúnan
SK: erári zitzaikúnan guziák
(Salvadorrek esaldia pluralean eman nahi izan bazuen ere, adizkia singularrean atera zitzaionez hemen kokatu dugu emaitza)
PA: érre zitzaikunán / érre zaikunán

2-35 b JU: ta géro g(r)urí tokàtu zitziàukuxúna… edòkitzëá guárdiak
(aditz alokutiboa deklinatutako erlatiboaz lotzea ez da egokia, kasu honetan Javierak hala egin bazuen ere)
SK: érre zaikúxun / érre zitzaikúxun
(lehenengo adibidea berez eman zuen Salvadorrek eta bigarrena –osatuxeagoa edo– laguntza pixka batekin, nahiz ez bata ez bestea guztiz egokiak ez izan)

2-36 CK: zér ['zuei', alegia] erári zitzaizién atzó
PA: érre zaizién

2-37 PA: érre zitzaén
CK: erári zitzaén etxéa yuén ándi
(Carmeloren erantzun hau erlatibo-egoeran agertzean, Pablok emanikoari eman diogu lehentasuna)
JU: … érre báitzitzáen
JU: mutíko ká(i)ek eré erràn zixién *xú* gustátzen zitzaéla

2-38 JU: erre zitziaekan
CK: erári zitzaiekán
PA: érre zitzaiekán
SK: erári zitzaekán gúziak
(galdera hau plural kasurako egin bazitzaion ere adizkia singularrean eman zuen Salvadorrek, nokako kasuan ere gisa berean jokatuz; horregatik ekarri ditugu bi erantzunok singularreko adibideetara)

2-39 JU: erre zitziaenan
CK: erári zitzaienán
PA: érre zitzaienán
SK: erári zitzaenán

2-40 b JU: eta… patáker ére beár zitziaéxun atendítu
SK: érre zitzaéxun
PA: adixkidér érre zitzaexún
PA: erre zitzaixún
(Pablok, azken adibide hau ematean, adizkia diptongatu zuen hiru silabatan emanez, era horretan erantzuna –nahi gabe, noski– 2-25-b zk.koarekin bateratsu eginez)

2-41 - 2-60, orainaldiko plurala; 2-61 - 2-80, iraganaldiko plurala.

adizki-zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
2-41	zaizkit	zaizta	zaizta
2-42	tok. alok	ziaiztak	ziaiztak
2-43	nok. alok	ziaiztan	ziaiztan
2-44 a 2-44 b	zuk. alok xuk. alok	ziaiztazu	 ziaiztatxu
2-45 a 2-45 b	zaizkizu id. (xuka)	zaizkizu	 zaizkitxu
2-46	zaizkik	zaizkik	zaizkik
2-47	zaizkin	zaizkin	zaizkin
2-48	zaizkio	zaizko	zaizko
2-49	tok. alok	ziaizkok	ziaizkok
2-50	nok. alok	ziaizkon	ziaizkon
2-51 a 2-51 b	zuk. alok xuk. alok	ziaizkozu	 ziaizkotxu
2-52	zaizkigu	zaizku	zauzku, zaizku
2-53	tok. alok	ziaizkuk	ziauzkuk, zaizkuk
2-54	nok. alok	ziaizkun	ziauzkun, zaizkun
2-55 a 2-55 b	zuk. alok xuk. alok	ziaizkuzu	 ziauzkutxu, zaizkutxu
2-56	zaizkizue	zaizkizie	zaizki(t)zie
2-57	zaizkie	zaizte	zaizte
2-58	tok. alok	ziaiztek	ziaiztek
2-59	nok. alok	ziaizten	ziaizten
2-60 a 2-60 b	zuk. alok xuk. alok	ziaiztezu	 ziaiztetxu

adizki-zenbakia	eredua eusk. batuan	Eaurta 1872	Eaurta 1989-93
2-61	zitzaizkidan	zizaiztan	zizaiztan
2-62	tok. alok	ziziaiztakan	zitziaiztakan
2-63	nok. alok	ziziaiztanan	zitziaiztanan
2-64 a 2-64 b	zuk. alok xuk. alok	ziziaiztazun	 zitziaizta(t)xun
2-65 a 2-65 b	zitzaizkiun id. (xuka)	zizaizkizun	 zitzaizkitxun
2-66	zitzaizkian	zizaizkikan	zitzaizkikan
2-67	zitzaizkinan	zizaizkinan	zitzaizkinan
2-68	zitzaizkion	zizaizkon	zaizkon
2-69	tok. alok	ziziaizkokan	zitziaizkokan
2-70	nok. alok	ziziaizkonan	zitziaizkonan
2-71 a 2-71 b	zuk. alok xuk. alok	ziziaizkozun	 zitziaizkotxun
2-72	zitzaizkigun	zizaizkun	zizaizkun
2-73	tok. alok	ziziaizkukan	zitziaizkukan
2-74	nok. alok	ziziaizkunan	zitziauzkunan
2-75 a 2-75 b	zuk. alok xuk. alok	ziziaizkuzun	 zitziauzkutxun, zitziaizkutxun
2-76	zitzaizkizuen	zizaizkizien	zitzaizki(t)zien
2-77	zitzaizkien	zizaizten	zitzaizten
2-78	tok. alok	ziziaiztekan	zitziaiztekan
2-79	nok. alok	ziziaiztenan	zitziaiztenan
2-80 a 2-80 b	zuk. alok xuk. alok	ziziaiztezun	 zitziaiztetxun

<u>adizki-zk</u> <u>adibideak</u>

2-41 CK: orái yá aníz gáuza… àtze záizta
(ikus 2-01 zenbakiko erantzunari eginiko oharra)
PA: érre záizta

2-42 JU: erre ziaiztak
CK: anítz erári zaizták

2-43 JU: erre ziaiztan
CK: etxéko gíltzak gáldu zaiztán

2-44 b JU: erári ziaiztatxú sàgar koék guziák
JU: átze ziaiztáxu
SK: erári zaiztátxu ságar guziák
PA: érre zaiztáxu
(bukaera hauek ez dira beti berdin aditzen; batzuetan *-xu*, besteetan *-txu*… Horregatik, tauletan, horiek guztiak *-txu*-ren alde berdindu ditugu, nahiz zenbait alditan *-xu* garbi bat aditzen den, Javierak emaniko '[gauza horiek niri] *atze ziaiztaxu*' kasuan bezala, adibidez)

2-45 b SK: xúri eré erári zaizkítxu gíltzak
JU: erári zaizkítxu sàgar koék guziák

2-46 CK: erári zaizkík

2-47 CK: íri eré gáldu zaizkín

2-48 PA: erári zaizkó sagárrak
JU: erre zaizko
CK: erári zaizkiónak…

2-49 JU: erre ziaizkok
CK: erári zaizkók
(laguntzaz emaniko erantzuna baina Carmelorentzat balio bide zuena –Javierak emanikoa hau baino egokiagoa izan arren–, noka kasurako, berez, *zaizkon* emana baitzuen)

2-50 JU: erre ziaizkon
CK: apézari erári zaizkón sagárrak

2-51 b JU: erári ziaizkótxu
SK: erári zaizkótxu

2-52 JU: erre zauzku
(*zaizku* izan liteke agian, eta baita, toka eta nokarako, *ziaizkuk* eta *ziaizkun* ere, beste zenbait informatzailerengandik bildu eta idatzi apunteen gainean egin ukituei behatuz gero, baina, xukarako, Javiera honexek *erori ziauzkutxu* eman zuenez eta baita, singularrerako, *zauku/ziaukuk/ziaukun/ziaukuxu* gisako laukotea ere, *zauzku* idaztea erabaki dugu)
SK: gúri erári záizku
CK: erári zaizkikún sagárrak yituén ónik
(erlatiboko esaldi honek iraganaldikoa izatearen itxura pixka bat ere badu, agian, ondoko *yituen* hori kontuan izanik bereziki)

2-53 JU: erre ziauzkuk
CK: erári zaizkúk

2-54 JU: erre ziauzkun
CK: erári zaizkún

2-55 b JU: erári ziauzkútxu
SK: gúri erári zaizkútxu

2-56 PA: zér erári zaizkitzié, erári zaizkítzie
(*zer* hau 'zuei' da kasu honetan ere; ikus, 2-16 zk.ko adibideetan, Pabloren erantzunari eginiko oharra)
JU: erre zaizkitzie
CK: erári zaizkizié eskúetarik

2-57 PA: erári zaizté
CK: erári zaizténak eré…

2-58 CK: adiskidér erári ziaizték guziák
JU: erre ziaiztek
PA: erári záiztek

2-59 CK: erári ziaiztén
JU: erre ziaizten
PA: adixkidér erári záizten

2-60 JU: erári ziaiztétxu
SK: erári zaiztétxu (adizkia laguntzaz emana)
PA: adixkidér erári záiztetxu

2-61 CK: erári zizaiztán
PA: érre zaiztán
JU: erre zaiztan
CK: … erári zaiztála sagár guzíak
(iraganaldiko adizkiek, askotan, beren lehenengo silaba galtzen dutenez, kasu honetan, esaldia zein testuingurutan eman zen ez bageneki, orainaldikotzat jo liteke)

2-62 JU: erre zitziaiztakan / erre ziaiztakan
CK: éni, orái duéla ratóxko bát, erári zitzaiztakán sagár guziák
PA: erári záiztakán

2-63 JU: erre zitziaiztanan / erre ziaiztanan
SK: erári zaiztánan ságar guziák

2-64 b JU: erre zitziaiztaxun / erre ziaiztaxun
(kasu honetan Javierak *-xun* bukaera hobeki ikusi zuen *-txun* delakoa baino)
SK: erári zaiztaxún guziák

2-65 b JU: erre zitzaizkitxun / erre zaizkitxun
SK: xúri eré erári zitxáixun / erári zaizkítxun
(bigarren erantzuna, ustez aurrenekoa baino egokiagoa, laguntzaz emana)
PA: érre zaizkitxún

PA: xúri eré érre xíntxan
(adizki desegokia erabili zuen oraingoan Pablok, kasu honetarako)

2-66 JU: erre zitzaizkikan / erre zaizkikan
CK: erári zaizkikán sagár guziák
PA: erári zaizkíkan

2-67 JU: erre zitzaizkinan / erre zaizkinan
CK: írí erári zaizkinán sagár guziák
PA: erári zaizkínan

2-68 PA: érre zaizkón
SK: emázte kári erári zitzáion ságar guziák
(adizkia singularrean emana, 2-28 zk.ko erantzunei egin iruzkinean adierazi bezala)

2-69 JU: erre zitziaizkokan
CK: erári zizaizkokán
PA: erári zaizkókan

2-70 JU: erre zitziaizkonan
CK: erári zizaizkionán
(adizkia laguntzaz emana, aurrenik, nokako era tokakoarekin nahasiz nonbait, *zizaizkiokan* emanik baitzegoen; lehenxeago, halere, tokako erantzuna eskatu zitzaionean, *i* tartekatu gabeko *zizaizkokan* ahoskatu zuen)
PA: erári zaizkónan

2-71 JU: erre zitziaizkotxun / erori ziaizkotxun
PA: erári zaizkótxun

2-72 SK: átzo erári zizaizkún súri ságar guziák
PA: érre záizkun
JU: erre zaizkun

2-73 JU: erre zitziauzkukan
CK: erári zizaizkukán
PA: érre zaizkúkan

2-74 JU: erre zitziauzkunan
CK: erári zizaizkunán / erári zaizkunán
PA: érre zaizkúnan

2-75 JU: erre zitziauzku(t)xun / erári zitziaizkútxun guziák
(bi une desberdinetan bildu adibideak dira hauek; hala ere, horrenbeste *-auzku-* eta *-auzki-*rekin, beldur gara inoiz edo behin daturen bat ongi bildu ez izana)
PA: érre zaizkúxun

2-76 CK: erári zitzaizkizién
JU: erre zitzaizki(t)zien / erre zaizki(t)zien
PA: zér ere atzó erári zaizkizién

2-77 CK: aixkideí eróri zitzaiztén etxéak yituén ándi
(bitxi da, zaraitzueraz, 3. pertsonari egokituriko datiboei bukaera hori ematea, *-er* gisakoa hain finkaturik egotean)
JU: … erre baitzizaizten
PA: bérze káer eré eróri zaiztén

2-78 JU: erre zitziaiztekan
PA: eróri zaiztekán

2-79 JU: erre zitziaiztenan
PA: eróri zaiztenán

2-80 JU: erre zitziaiztexun
PA: eróri zaiztétxun

(jarraitzekoa)

BIBLIOGRAFIA ETA BESTE

ALZOLA GEREDIAGA, N., "Una carta de D. Pedro José Samper, Vicario de Jaurrieta, dirigida al Príncipe Luis Luciano Bonaparte", *Príncipe de Viana*, año 19, núms. 72-73, Iruñea, 1958.

ARANA, A., *Zaraitzuko Hiztegia*, Nafarroako Gobernua eta Hiria Liburuak, 2001.

ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA - ETNOLOGIA MINTEGIA, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* (EAEL), *I* eta *II*, Donostia, 1983 eta 1990, hurrenez hurren.

ARTOLA, K., "Erronkariko uskararen azken hatsak… eino're", *FLV,* 25, 1977.

–, "Erronkariko uskararen azken hatsak… oraino're", *FLV,* 34, 1980.

–, "Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra (I) eta (II), *FLV,* 58 eta 85, 1991 eta 2000, hurrenez hurren.

AZKUE, R. M. de, *Diccionario vasco-español-francés* (repr. facsímil), edit. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.

BONAPARTE, L. L., *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes eta variétés*, Londres, 1863.

–, *El salmo quincuagésimo, traducido al vascuence del valle de Salazar, de la versión castellana de don Felipe Scio, por don Pedro José Samper, abad de Jaurrieta,* Londres, 1867 - "Itxaropena S. A."k 1973an birrargitaratua.

–, *El salmo quincuagésimo, traducido al vascuence aezcoano, salacenco y roncalés de la versión castellana del Padre Felipe Scio, por don Martín Elizondo, de Aribe, don Pedro José Samper, abad de Jaurrieta, y don Mariano Mendigacha, de Vidángoz,* Londres, 1869 - "Itxaropena S. A."k 1976an birrargitaratua.

–, *Le verbe basque en tableaux,* Londres, 1869.

–, *Études sur les trois dialectes basques del vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aribe, à Jaurrieta eta à Vidangoz,* Londres, 1872.

CAMINO LERTXUNDI, I., *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa,* Nafarroako Gobernua, 1997.

ECHAIDE ITARTE, A. M., *El euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas* (1965-1967), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.

ESTORNÉS LASA, J., "Jesu-Kristo Gore Jeinaren Ebanjelio Saintiua según San Mateo, Pedro Prudencio Hualde Mayo. Oraiko ortografiaz eta anotazione batzuk", *FLV,* 39, 1982.

–, "Zoilo'ren uzta, La cosecha de Zoilo", *FLV,* 45, 1985.

IZAGIRRE, K., "Erronkariko euskal-ondakin batzuk", BRSVAP, XV-3º, Donostia, 1959.

LAN TALDEA, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak - zaraitzera*, Deustuko Unibertsitatea (Deiker), Euskal Ikaskuntzen Institutua, Bilbo, 1997 (Lan garrantzitsu honetan Itzaltzukotzat jotzen den dotrina ez da herri horretakoa, Itzallekoa baizik).

MITXELENA, K., "Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el príncipe Bonaparte", *Boletín de los Amigos del País,* Donostia, 1958.
–, "Notas fonológicas sobre el salacenco", *ASJU* I, Donostia, 1967.
–, "Un catecismo salacenco", *FLV*, 39, 1982.
ONDARRA, F., "Primer sermón en vascuence navarro (1729)", *FLV*, 38, 1981.
SATRUSTEGI, J. M., *Euskal testu zaharrak - Zaraitzu* (1780), Euskaltzaindia, 1987.
–, "Zaraitzuko euskararen lekukoak", *Luis Villasanteri Omenaldia. Iker*, 6, Euskaltzaindia, 1992.
YRIZAR, P. de, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca (I)*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1981.
–, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*, Euskaltzaindia, 1999.
–, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental (I)*, *(II)* eta *(III)*, Euskaltzaindia, 1999-2002.
ZUAZO, K., "Euskalkiak, gaur", *FLV,* 78, 1998.

ESKUIZKRIBUAK

Itzalle (Izal), 1727:

Doctrina Uscaras Dn Benito Gil escrivituric ver governuarendaco. Yzallen Avenduaren amalaurgarrenean, urte mila zazpitan eun eta ogei eta zazpietan. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

Igari (Igal), ??:

Lengua euskara, nº 10 - Catecismo en bascuence, dialecto vulgar de Igal. Iruñeko Artxiboan aspaldi fotokopiaturiko orrietan ez dugu bestelako erreferentziarik ikusten. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

Orontze (Oronz), 1857:

Lehenengo orrialdean zera irakur daiteke:
Abrégé de la Doctrine Chrétienne en le Dialecte Basque qu'ont parle dans le Val de Salazar Province de Navarre (Espagne), eta particulièrement dans le Village de Oronz du même Val, présentée en cadeau a Monségneur le Prince Imperial de France Lucien Bonaparte, dans la Ville de Ochagavia. Le 6 Novembre de 1857.
Azkeneko orrialdean, berriz, honako eskaintza xumea ageri da: *A Fr. Miguel Garcia, Abad intº de Oronz*, eta, horren azpian, *Atanasio Urrutia.*
Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

Otsagi (Ochagavia), 1834:

Doctrina cristiana en bascuence, escrita en 1834 y añadida años anteriores con varias preguntas y respuestas necesarias y principalmente sobre la misa, confesion y comunion. Del Mro. de Ochagavía Juan Marco Juanco. Cristioen Doctrinaren declaracioa pregunta eta errespuestaequi. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

Eaurta (Jaurrieta), 1866:

Catecismo doctrina cristianarna, Aita Gaspar de Astetec compondua, zoin corregitric eta añadienzequin publicacenbaita Exmo. eta Illmo. Ssaun Doctore Don Pedro Cirilo Uriz eta Labairu, Yruñaco Obispoaren ordenez bere obispadocoen usutaco. Don Pedro José Samper eta Elizari Eaurtaco Apez Ssaunac bere errico uscarala izuliric bere feligresen usutaco - Eaurtan. 1866. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.

Eaurta (Jaurrieta), 1869:

Jesucristo gure Jaunaren Evangelio sandua Según San Mateo. Don Pedro José Samper, Eaurtaco apez Ssaunac, Aita Amaten erdaratic Eaurta bereco uscarala itzulia - 1869. Bonaparte printzearen testamentariako eskuizkribua, Nafarroako Diputazioaren Artxibo Orokorrean.
Hona, itzulpenerako, Samperrek erabili zuen testua:
"Nuevo Testamento - Traducido de la vulgata latina teniendo a la vista los textos originales, por el P. José Miguel Petisco, S. J., dispuesta y publicada por el Ilmo. Sr. D. Félix Torres Amat".
Kontsultarako erabili dugun argitarapena, berriz, honako hau:
"5ª edición. Editorial Apostolado de la Prensa, S. A. Madrid, 1960".

LABURPENA

Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak izenburu orokorra eman diogun lan honetan, zenbait entregatan garatuz joango garena, nafar Pirinioaren hegoaldean kokatu Zaraitzu ibarreko mintzamoldea, Aezkoa eta Erronkari izeneko ibarren artekoa, aztertzen saiatuko gara, horretarako 1975. urteaz geroztik adin handiko gizon eta emakume batzuengandik bildu ditugun datu ugari samarrak, zein bere testuinguruaren arabera, baliatuko ditugularik. Zaraitzuko euskara Louis-Lucien Bonaparte printze euskaltzaleak egindako mapa zoragarrian ekialdeko behe-nafarreraren esparruan kokaturik agertzen da, horretarako arrazoi nagusienetarik bat, antza, errespetuzko alokutibotasunaren erabilera izaki, ekialdeko euskalkien ezaugarri.

RESUMEN

En este trabajo, que iremos desarrollando a través de varias entregas y al que hemos dado por título genérico *Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak,* trataremos de analizar el habla del valle de Salazar, situado al sur del Pirineo entre los de Aézcoa y Roncal, valiéndonos para ello de los datos, bastante abundantes, que hemos recogido de distintos informadores de edad avanzada a partir del año 1975 y que hemos procurado enmarcar en sus respectivos contextos. El euskara del valle de Salazar fue incluido por el vascófilo príncipe Louis-Lucien Bonaparte, en su meritísimo mapa, dentro del dialecto bajonavarro oriental, siendo, al parecer, una de las razones de mayor peso para tal inclusión el empleo en dicho euskara de la alocución respetuosa, común a los dialectos orientales.

RÉSUMÉ

Dans ce travail, que nous développerons sur plusieurs éditions et auquel nous avons donné le titre générique *Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak*, nous essaierons d'analyser le parlé de la vallée du Salazar, située au sud des Pyrénées, entre celles d'Aézcoa et du Roncal, en nous aidant pour cela des données, assez abondantes, que nous avons obtenues de divers informateurs d'un âge avancé, à partir de l'année 1975 et que nous avons essayé de placer dans leurs contextes respectifs. L'euskara de la vallée du Salazar fut inclus par le prince bascophile Louis-Lucien Bonaparte, sur sa carte très méritoire, dans le dialecte de Basse Navarre Orientale, l'emploi dans le dit euskara de l'allocution respectueuse, commune aux dialectes orientaux étant, semble-t-il une des raisons de plus grand poids pour une telle inclusion.

ABSTRACT

In this study, which is to span several instalments under the general title of *Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak*, we intend to analyse the spoken form

used in the Valley of Salazar, situated to the south of the Pyrenees mountains between the valleys of Aézcoa and Roncal. The study is based on the fairly abundant quantity of information collected from a number of elderly residents since 1975 and which we have tried to frame within the relevant context. The Basque language from the Valley of Salazar was included within the Eastern "Bajonavarro" (Lower Navarran) dialect by the scholar of Basque, Prince Louis-Lucien Bonaparte in his commendable map. One of the main reasons for such a decision was, it would appear, the use in this version of the language of the respectful speech common to Eastern dialects.